



Pedro Deskarga
Eratsungo alkatea

03

Pedro Deskarga da azken bi legegaldi hauetan Eratsungo alkate. Egurraren krisia nabaritu dutela aitortu digu, gastu asko horrekin estali izan dituztelako.



Eztabaida Baztango
hiltegiaren inguruan

04

Baztango Loizu hiltegiaren inguruan ezinegona somatzen da. Egoera hurbiletik ezagutzeko langile batekin, Baztandarra Kooperatibarekin eta Udalarekin solastu gara.

2009ko uztailaren 23a • XXIX. urtea
www.ttipi.net



32

Izeba-lobak segalari

SEGA ESKUAN TXAPELKETAZ TXAPELKETA IBILTZEN DIRA
AINHOA ETA IXABEL ANSA ARANOARRAK

Martiko[®]
Keztatuak

Martiko Pol. Zalain, s/n
31780 Bera. Nafarroa.
Tel: 948 625156 Fax: 948 625157
www.martiko.com



B E S T A O N A K P A S A !



Ahatekietan adituak
eta arituak

Martiko Pol Zalain, s/n.
31780 Bera. Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com



Z O R I O N A K !

VENTA
PEIO[®]

Venta Peio
Ibardingoa gaina. Ibardin.
Tel. 902 210 800
www.venta-peio.com



DATUAK...

- 68 urte ditu Apeztegi Goiako Pedro Deskargak. Erretiratua da eta azken bi legegaldi hauetan bera da Eratsungo alkatea.
- Herrian lurrekin gorabeherak batzuk zeudelako aurkeztu zen Iruñarri taldearekin 2003ko hauteskundeetan, eta urte hartan izendatu zuten alkate.
- Azken urteotan biztanleriak beheiti egin du Eratsunen: azken 10 urteotan ia 100 lagun guttiago bizi dira. Momentu honetan, etxe berriak egiten ari direla kontatu digu alkateak, baina «*gehienak asteburuetan etortzeko dira*».



Pedro DESKARGA *Eratsungo alkatea*

ARGAZKIA: TTPI-TTAPA

«Orain arte egurraren salmentatik ateratakoarekin dena estali izan dugu»

ttipi-ttapa

Nolatan aurkeztu zinen hauteskundeetara?

2003an izan zen. Gehienbat lurrekin arazoak zeudelako aurkeztu nintzen. Hitzarmen baten bitartez, partikularrak ziren zenbait lur herriaren izenean paratzen hasi zen Udala, eta gu ez geunden konforme. Atera kontuak, 2003ko hauteskundeetan parte-hartzea ia %100ekoa izan zen. Orduan bi talde aurkeztu ginen eta bost ordezkariarik lau gure taldekoak izan ginen. Iruñarri taldearen izenean aurkeztu ginen, denak ere berriak, lehendik udaletxean egon gabekoak. 2007an, berriz, gu bakarrik presentatu ginen.

Bi legegaldi hauen zein balorazio egin duzu?

Ona, ez dugu eztabaidarik izan, eta uste dut jendea ere gustura dagoela. Lur eremu horien kontua konpontzeko itxaropena ere eman digute Nafarroako Gobernuan eta horretan ari gara.

Zein dira Eratsunek begi-bistan dituen proiektuak?

Lurren arazoa konpondu nahi dugu. Horrez gain, Hirurteko Planean proiektu

«Ez da lan handia alkate izatea, baina taldekoak kanpoan ari dire lanean eta astez behintzat neronek egin behar dut. Osasunez ongi egonez gero, egiten da, baina arazo batzuk badituz eta... »

tu bat onartu digute. Aurreko Hirurteko Planean herritik harrobira bitarteko bidea berritu genuen. Eta orain herria zeharkatzen duen bidearen azpitik dauden karraketan zola berrituko da.

Lan handia eskatzen du Eratsungo alkate izateak?

Ez da lan handia, bainak taldeko lagunak denak kanpoan ari dira lanean eta astez behintzat neronek egin behar dut. Osasunez ongi egonez gero, egiten da baina arazo batzuk badituz eta...

Otsaileko uholdeek kalteak eragin zituzten herrian, ez?

Bai, lan batzuk baditugu egiteko. Iruñarriko antenarako bidea hondatu zen baina hura Nafarroako Gobernuak konpontzea lortu genuen. Beste bide

bat ere badugu kaltetua, garai batean baserrietara joateko bide zaharra zena. Hori moldatu nahi dugu, baina oraindik ez dakigu subentziorik jasoko dugun.

Krisia nabaritu da Eratsunen?

Egurraren krisia dago hemen. Mendiak markatuak ditugu baina ezin dugu egurra saldu. Ez dakit zer egingen dugun, egurraren salmentatik ateratako diruarekin dena estaltzen baikenuen. Ez joan den urtekoak, ez aurtengoak ere ez daude salduak eta ez dut uste martxa izugarria dutenik. Egurraren salmentatik 10-11 milioi pezetan ateratzen genituen krisia ailegatu zen arte, eta aurretik gehiago. Aipatzekoa da, frontoi berria egin zela, eta 12 urtez hura ordaindu behar dela.

Zein dira inbertsiorik haundienak? Mendiko mantenimendu lanak, bestak antolatzea...

Nola ikusten duzu Eratsun momentu honetan?

Biztanleria beheiti doa. Azken aldian etxe batzuk egin dira eta egiten ari dira, baina jendeak asteburuetan etortzeko ditu. Kanpoan lan egiten du eta herritik kanpo bizi dira.



Baztango Udalak 1997an sortu zuen Loizu hiltegia, Iruritan, Baztango beharrak ez ezik, eskualde osokoak hornitzeko. Hasiera hartan hiru langilek autonomo modura hartu zuten hiltegiaren kudeaketa, baina borts urterako kontratua zena, akitu baino lehen eten zuten. Ixteko arriskuan gelditu zen orduan, eta hori saihesteko Baztandarra Kooperatibarengana jo zuen Udalak. Geroztik, azken zortzi urteotan, kooperatibaren esku dago gestioa. Langileek, berriz, autonomo gisa segitzen dute. Sorreratik 12 urtera ezinegona somatzen da hiltegiaren inguruan eta egoera hurbiletik segitzeko auziarekin lotura zuzena duten hiru aldeekin egon gara: Isaak Rekalde langilearekin, Xanti Urrutia Baztandarra Kooperatibako presidentearekin –juntako guztien izenean mintzatu da– eta Virginia Aleman Baztango alkatearekin. Hiltegia bakarra da baina iritziak kontrajarririk.

SORTU ZENETIK 12 URTERA

Eztabaida eta ezinegona Baztango Loizu hiltegiaren inguruan

ttipi-ttapa

1993an onartutako Europako hiltegien araudi berriak eskualdeko hiltegi tikiak ixtera behartu zituen sortu zen Baztango Loizu hiltegia, 1997an. Hasi Bortzirietatik eta Xareta aldera bitarteko beharrak asetzeko hiltegi bakarria proposatu zen eta horren ondorioa izan zen Loizu, Iruritan dagoen eraikin industrialia. Sortu zen urtean Loizu elkarre mugatuko hiru kidek Baztango Uda-

larekin hiltegia gestionatzeko borts urterako kontratua sinatu zuten, baina ez zen ongi atera. 3-4 urtez hiltegia eraman zutenek kontratua etetea erabaki zuten. Orduko Baztango alkatea bera ez bazen ere, Virginia Alemanen arabera, «*osasun eskakizun berriekin kudeaketa konplikatu zelako utzi zuen bertan behera Loizu elkarteak kontratua*». Amaiurko Isaak Rekalde hiltegiko langilearen hitzetan, ordea, «*hiltegia*

errentan hartzeaz gain, mantenuaren eta lana bilatzearen lana osorik gure gain utzi zuten. Eta horrela ezin zitekeelako segi hautsi genuen».

Hiltegia ixteko arriskuaz jabeturik, Udalak Baztandarra Kooperatibara jo zuen kudeaketaren ardura eskainiz. Eta honek baietza eman zion. Hala, 2001az geroztik kooperatibak darama hiltegiko kudeaketa. «*Kooperatibak zerbitzua mantentzeagatik eman zuen baietza.*

«Doi-doi dabilenak
ixteko arriskua du eta
halako zerbait gertatzen
bada denok galduko
dugu»

«Hasierako helburua
hiltegia zabalik manten-
tzea zen eta hori lortu da.
Epe luzera bertze proiektu
batzuk ere bazeuden»

«Sorrerako zerbitzua
ematen segitzen du,
nahiz eta gestioa
ordukoa baino konplika-
tuagoa den orain»

I. REKALDE -langilea

*Itxiz gero, hemen hiltegirik gabe gelditu-
ko ginatkeelako eta jendeak kanpora jo-
an beharko lukeelako. Hori izan zen ha-
sierako helburua. Eta luzera begira, ber-
tze proiektu batzuk ere bazeuden». Ho-
rrela azaldu digu Xanti Urrutia kooperati-
bako lehendakariak, juntaren izenean. Al-
kateak kontratuari buruzko xehetasunak
eman dizkigu: «zerbitzuaren ustiapena
errentariaren esku dago, eta bitarteko tek-
niko, material eta pertsonalez berak ar-
duratu behar du. Udalak gastuak bere gain
hartuko ditu».*

Kooperatibak zortzi urte hauen inguru-
an egin duen balantzea «ona» da, «ha-
sierako helburua hiltegia zabalik man-
tentzea zelako eta hori lortu delako». Bi-
de beretik jo du Alemanek ere: «12 urte-
ren buruan, sorrerako zerbitzua ematen
segitzen du, nahiz eta gestioa ordukoa
baino konplikatua den orain». Baina
ez da iritzi berekoa Isak Rekalde, ha-
sieratik somatu baititu gabeziak hiltegian:
«lehenbizirik herritarren hiltegi bat sortu
behar zen, herritarrei zerbitzu bat emate-
ko, baina sortu zena harakinak asetzeko
hiltegia izan zen». Gabeziak ez dira gutti
amaiurtarraren hitzetan: «hasierako plan-
teamendu eskasaren ondorioz, hiltegia
aziendak hiltzeko bertzerik ez zen disei-
natu, puskatzeko zerbitzurik gabe. Ara-
tzeak, behiak, ardiak eta bildotsak hiltze-
ko lineak jarri baziren ere, zerriak hiltze-
ko linearik ez zen jarri. Gainera, hiltegia
sanitateko arauak bete gabe ireki zuten:
odola egosteko sistema, ur zikinak be-
reiztekoa...». Puskatzeko zerbitzua 2005
eta 2008 urteen artean egin zen. Eraikina-
ren «kalitate eskasa» izan da nabarmen-
du duen bertze hutsunea: «zola aratzeen
atzaparrekin zulatzen zen, paretak ahu-
lak eta hauskorrak...». Geroztik Udalak
inbertsioak egin ditu. 2005 eta 2008 urte-
en artean, erraterako, 325.223,50 euro-
ko gastua egin zuen gabeziak konpon-
tzeko. Baina langilearen arabera, «gu-
titieneko osasun arauak eskatutako in-
bertsioak izan ziren». Halere, Udalak, gar-
bi du eskatzen diren osasun baldintzak
eta teknikoak betetzen dituela hiltegiak.

LAN BALDINTZA 'PREKARIOAK'

Rekalderen irudiko, lan baldintza «txa-
rretan» daude eta egoera honen gibelean,
Udalaren «utzikeria» eta Baztandarra
Kooperatibaren «planifikazio eza» dau-

X. URRUTIA- Kooperatiba

V. ALEMAN- alkatea

ETORKIZUNA



Isak Rekalde hiltegian, zerriak hiltzeko mahaien ondoan.

ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

'Arriskua' eta 'itxaropena' aurrez aurre

Etorkizunaz galdetuta,
«arriskua» eta «itxaro-
pena» aipatu dizkigute.
«Doi-doi ibiltzen denak,
ixteko arriskua du», dio
Rekaldek. «Eta halako
zerbait gertatuta, denok
galduko dugu. Iruñera
edo Donostiara joan be-
harko da eta ez da zer-
bitzuberatzen». Hilde-

gia momentu «zailean»
dagoela uste du Urrutia
kooperatibako lehenda-
kariak, baina etorkizuna
ez du «hain gaizki ikus-
ten». «Komertzializazioa
ongi egiten bada, asma-
tzen bada, etorkizuna iza-
nen du. Ez bada hori egi-
ten, orain bezala egonen
gara». Udalak, bere al-

detik, zerbitzu publikoa
eskaintzen segitzeko itxa-
ropena du. «Halere, etor-
kizuna erabiltzaileen eta
hiltze-mailaren arabera-
ko izanen da. Udal Go-
bernuak kooperatibare-
kin kolaboratu nahi du
zerbitzua eskaeraren ara-
bera egokitu dadin», azal-
du du Alemanek.

de. Horren harira, zera azaldu digu Urru-
tiak: «lehen urte haietan azienda gutti hilt-
zen eta hasierako kezka nagusia
bolumen hori haunditzea izan zen, eta
urteekin hori lortu da. Badira bertze hel-
buru batzuk ere, batez ere komertziali-
zazioa bultzatzea, baina momentuz ho-
rretan ez gara hasi, bertze proiektu ga-
rrantzitsuagoak ditugulako esku artean».
Udalak giza baliabideen arduraduna koo-
peratiba dela gogoratu, eta honek egoe-
rari buelta emanen diolakoan dago.

Kiloko egiten duten lanaren arabera
kobratzen dute langileek. «Hori hasiera-
tik horrela izan da. Lehenago ere gai hau
atera zen, eta gehienak ados daude orain
dauden bezala. Baina noski, langile ba-
koitzak bere iritzia du», dio kooperatiba-
ko lehendakariak. Udalaren irudiko «lan-
gile bakar baten adierazpenak dira, eta
ez dakigu gainerakoek zer pentsatzen
duten».

Gorabeherak gorabehera, potentzialta-
sun haundiko zerbitzua dela deritzo Isaa-
kek. «Baztan-Bidasoaldetik etortzen da
jendea, baita Ultzama aldekoa ere». Sa-
soiaren arabera, lana aldatzen bada ere,
beti badute egitekoa. Kooperatibako junta-
kidearen ustez, potentzialtasun haundi-
ko zerbitzua izateko, «komertzializate-
ko pausoa» ematea ezinbertzekoa da.
«Azienda hiltegian hil baina ez bada inon
kokatzen, ez da deus ere lortuko». Uda-
lak ere badu hiltegia indartuko den
itxaropenik.

Momentu zailean dago hiltegia, eta
bai Rekaldek eta bai kooperatibako ki-
deek ere, bat egin dute alde guztiek so-
lastea ezinbertzekoa dela erratean: «al-
de guztiak elkartu eta bakoitzaren beha-
rrak aztertu behar dira», dio langileak. Bi-
de beretik, Urrutiak hauxe: «denen arte-
an solastuta konponduko dira arazoak,
eta ez bakoitza bere airera ibilita».

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Gurutze Pikabea.
Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtatzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.
Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senperoko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2009ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	36 €
España	36 €
Ipar Euskal Herria	54 €
Europa	54 €
Amerika eta Australia	120 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	30 €



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euskarabidearen laguntza jaso du



• IRAKURLEAK MINTZO •

Berako IX. Itzuliak: Milesker

Lehenko ortziralean elkartu ginen lanean aritutakook, IX. Itzuliaren balantzea egin eta afarixko batean. Balantzea: aski ongi joan zela. Jendearen erantzuna: ikaragarri ona.

Baina... «baina» batzuk izan zituen IX. Itzuliak: jende pilaketak irteeran, diplomak batzuri ondotik bidali beharra... Izan ere, uste genuena baina jende gehiago etorri zen eta gainezka egin zigun pittin bat. Aitortzen dugu.

Lerro hauen bidez, beraz: milesker diruz eta lanaz eta txaloz lagundu diguzuen guztiei; zuek gabe, deus ez ginateke. Eta milesker ere: patzientzia hartu diguzuenei.

Agerra Mendi Taldea

• 11 GALDERA LABUR •

Gure Txokoan hasi, Irungo Mariñon gero eta 2007az geroztik Ingalaterra-ko Cheltenhamen. Aldaketa haundia?

Futbol mailari dagokionez, ez. Kontua da, kanpora joan nintzela ikastera eta futboleko jokatzeko segitu nahi nuela eta hurbilen zegoen taldea hori zen.

Zer du futbolak bertze kirolek ez dutena?

Niretzat jendea ezagutzeko, euren kulturaren sartu eta hizkuntzak ikasteko modurik onena izan da.

Zein dira atzelari onaren ezaugarriak?

Pazientzia izatea eta neurtzea.

Zergatik taldeko kapitain?

Uste dut zelaian aunitz solasten dudalako. Kanpokoa izan arren, nire ingeles pixarrarekin eta hemengo azentuarekin ez naiz isiltzen. Azken lerroan nago eta hortik dena ikusten dut eta

aginduak eman ditzaket. Gure Txokoan eta Mariñon ere hala nintzen.

Kirol Zientziak ikasi dituzu Ingalaterran...

IVEF egiten hasi nintzen

Gasteizen. Erasmusera joan eta urte hartan hango unibertsitatera joatea erabaki nuen. Kirola eta osasuna gehiago lantzen dute.

Karrera bukatuta, master bat egiteko beka jaso duzu...

Unibertsitate berdinean egiten dut, ariketa fisikoa eta osasun publikoaren inguruan

Sasoian egoteko zaintzen zara?

Bai, batez ere han, entrenamendu gutti egiten baitira. Pista bat uzten dute jokalarientzat eta norberak erabaki behar du. Unibertsitateko taldearekin eta Cheltenhamekin entrenatzeaz gain, nire kontura lasterka ibiltzen nintzen.

Futbolaz gain, bertze afiziorik?

Musika. DJen lana ikasten ari naiz. Ingalaterrako lagun batek diskoteka batean egiten du lan eta batzuetan berarekin joan eta erakutsi egiten dit.

Ingelesengandik diferenteak gara?

Hasieran hotzak dira. Baina behin eza gututa, niri lagundu egin didate.

Hurrengo urtean futbol talde honetan segituko duzu?

Bertze talde batean saiatuko naiz, orain artekoa baino maila bat gorago dago.

Masterra egindakoan zer?

Masterraren baldintzetako bat, epe baten barne lan egitea honat etortzea da. Han lan egiteko aukera emanez gero, geldituko naiz, bertzela, honat.

Amets bat?

Orain bizitzen ari naizena. Ez nuen inondik inora ere planeatua.



Lorea SAROBE
Berako futbolaria

Kulturkari
diseinu grafikoko arloa

Andutzeta, 12 - 31760 Etxalar
Tel. 948 635 458 - Faxa 948 635 457
kulturkari@ttipi.net

Enpresa batek behar ditzakeen diseinu grafikoko arlo guztiak egiten ditugu



Bera, Leitza,
Sunbilla eta
Beintza-Labaiengo
bestak 2009



BERAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERA

Berako udalak besta zorientsuak opa diezkieue
GORA BERAKO BESTAKI!

goya

- Arropak
- Maindirak
- Mantak
- Nordikoak
- Toailak
- Kortinak
- Alforbrak

ongi pasa bestak

Aitzate, 5 • 948 630 083 • BERA

Urdi Bera

GORRA SAN ESTERAN eta ingi pasa bestak

Kalea: Iturrizte 948 630 215

TKALUPA, S.I. ARRANDEGIA

Arrain eta marrika freskoak
aste osoan
Eskarguak
hartzen ditugu

ongi pasa bestak!

Kaustiberrin, 3 - Bera. Tel: 948 630 512 • 948 631525 BERA

MEKANIZATUAK

Ubela

Poligono Industrial Zubain, nº 8
Tel. y Fax: 948 63 11 67
BERA (Nafarroa)

ZELA KIROLAK

ONGI PASA BESTAK!

948 630 598
Aitzate, 6 • BERA

JOSE LEÓN MENDIBURU
Abokatu bulegoa

Dolencia, 26 - 1. era.
948 631 027
909 723 281
jaleonmendiburu@gmail.com
BERA

ongi pasa bestak!

KIMAKETA BEREZIAK

Ituzkia
Irezaintza

666 40 72 14 • 948 63 11 99
Hegoalde 33, 2 ezk • BERA

LUR-LAN eskabazioak

- Eskabazio lanak orokorrean
- Lur ateratzeak, zanpatzeak...

Kaxerna auzoa, 3
Tel: 948 630 449
Mug: 653 017 967
BERA

Saneamientos GARE

- Estregelatu altzari eta azarritak.
- Hidrosanitu duta eta laburtutak.
- Berregitu instalaketak.
- Gas natural instalaketak.
- Titulazio telebitalak.

C/Kaustiberrin, 10 Beja
Bera
Tel: 948631107 / Fax: 948631002
Movi: 608976034

Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu

MERYT
Materialak

Beran, eraikuntzako
biltegi orokorra

Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Ubela Industrialdea - Tel: 948 631 201 - BERA

carniceria harategia

Esarte

ELIZONDO 948 630 128
DONOSTIA 948 436 132

BEOLA-ETXEA
/ supermerkatua / bar / jatetxea /
/ lurindenda / moda /

ongi pasa bestak

Cartier KENZO BOSS
BENCH BENCH
TICKET Lolita Limpicki

Ibardin gaina, 30
31780 Bera - Nafarroa
Te. (0034) 948 630 709
Fax. (0034) 948 631 051
www.beolaetxea.com

Berako bestak

«Joan den urteko aurrekontu berdintsua izanen dute aurten ere Sanesteban bestek, 75.000 euro inguru»



Josu IRATZOKI
Berako alkatea

Berako Sanesteban bestak abuztuan badira ere, urte hasieran hasten dira antolaketa lanak, Josu Iratzoki alkateak aipatu digunez: *“Kultur Batzordeak bultzatuta eta deituta hainbat talde elkartzen dira, hilabetean behin edo, dena antolatu arte. Hor sartzen dira dantzariak, koadriletako ordezkariak, musikariak eta hainbat jende”*. Herri gehienetan bestetarako krisi garaiko aurrekontuak izan badi-tuzte ere, Beran joan den urteko diru-kopuru berdintsua mantenduko dute. *“Joan den urtean 75.000 euro inguru gastatu ziren bestetan eta aurtengorako ere aurrekontu beretsua mantendu dugu. Aurten eustea lortu dugu, baina heldu den urterako seguraski murriztu beharko dugu”*. Egitarauari dagokionez, ez da aldaketa handiegirik, baina ASPEK ekarriko duen profesionalen arteko pilota partidak azpi-

marratu nahi izan du alkateak: *“Joan den urtean arrakasta handia izan zuen pilotak, jendeak frontoia betezuen eta aurten ere punta-puntako pilotariak izanen dira: Irujo eta Laskurain, Xala eta Pascualen kontra partida nagusian eta lehenbizikoan, Larralde eta Berasaluze IX izanen dira aitzineko koadroetan”*. Gainera, egun bat gehiago izanen dute bestek, larunbatean, abuztuaren 1ean, hasiko baitira: bestarako sei egun, beraz.

Donato Larretxeak txupinazoa

Joan den urtean Nafarroako bertsolari txapelketan txapeldun suertatu zen Julen Zelaietak bota zuen txupinazoa eta aurten bertze txapeldun haundi batek izanen du horretarako aukera, Donato Larretxea aizkolariak. Goi mailako aizkolariak uda garaian lanez gainezka izaten badira ere, *“egun hori libre zuela eta gustora botako duela erran zigun”* dio Josu Iratzokik. Alkateak berak gustoko dituen ekitaldiak galdetuta, bazkaritik bazkarirako saltoa egin digu: *“Bezperan bazkaria izaten dut koadrilarekin eta lehenbiziko eguna izaten denez, bestarako gogoz izaten gara guziak, ez dut inoiz hutsik egiten. Gero, hondar eguneko herri bazkaria ere gustoko dut”*. Gogoratu behar da azken eguneko herri bazkari honetarako laguntzaileak ere eskatu dituela Kultur Batzordeak eta uztailaren 28a baino lehen apuntatu behar dela, 012ra deituz.

Alkatea izanik, lehenago hainbertze bizi ez zituen ekitaldi ofizialetan eta protokoloetan ere parte hartzen du orain Josu Iratzokik: *“Lehen normalean ez nintzen elizara joaten San Esteban egunean, beharbada bertsoak aditzen nituen plazan, baina mezara ez. Orain, nere karguak hori eskatzen du eta lehenbiziko egunean formalxeago ibili behar dut, baina polita izaten da: korporazioa ere hortxe joaten gara, dotore-dotore, agente-makila, domina, banda, bandera eta bertze-*

lako apaingarriekin”. Bestak izanik ere, egun horietan tarteka lana egin behar izaten du alkateak: *“Inguruko herrietako alkateak etortzen dira bazkaltzera 4an eta hori antolatu behar izaten da eta beti izaten da azken orduko ezusteren bat eta beti deitzen zaituzte”*. Halere, ahalik eta umore onenarekin erantzuten eta aldi berean, bestetaz gozaten saiatuko da aurten ere Josu Iratzoki alkatea.

GANIX TALLERRA
ibilgailuen mekxanika eta elektrizitateko
FIAT zerbitzua
Iruñedeta, 9 - Tel: 948 630 669 - 1111

EZPELA
ZUBIETAN
BERA
678 350 412 (Eloy)
617 081 335 (Marias)

Albaitaritza Klinika
Txertoak - Analisisak - Kirurgia
Pentsuak eta osagarriak
Zakurrendako ilepaindegia
Ordutegia:
11:00 - 13:00 / 17:00 - 20:00
Larunbatetan:
09:30 - 13:00
Tfnua:
948 631 362 - 669 877 943



ONGI PASA BESTAK

- Mekanika
- Elektrizitatea
- Karrozeria
- Kamioiak
- Ibilgailuak
- Furgoneta - 4x4

Faxa: 948 625 171 • Mug.: 679 892 032
Banarta, 18 • Alkaiaga Ind. • LESAKA



Herriko Etxeko Plaza, 11
070 41 29 08
BERA

*Berla
on bestak
para!!*

NISSAN T. BERABI, S.L

- Salmenta eta konponketa
- Auto berri eta okasiokoak
- Lur orotako ibilgailu eta diseletan espezializatuak
- Zerbitzu azkarra

Elutza, 3/16 • Alkaiaga • Tinoa Faxa: 948 631 445
BERA • NAFARROA



ongi pasa bestak!

Ipar karrika, 18 • 31780 BERA • 948630304

Merkaopari



ostargi optika
Eko Auto's Ferrar
Optika optometriak

948 650 755
Etxe 8, 31780 BERA



Gehoki karrika, 5 • Tel: 948 630 261 - 631 008 - BERA

LESACA-DONOSTIA

astelehenetik-ostiralera (besta egunetan ezik)			
LESACA	BERA	IRUN	DONOSTIA
7:10	7:25	8:00	8:30
8:15	8:30	9:05	9:35
14:45	14:50	15:30	16:00
larunbatetan (besta egunetan ezik)			
9:00	9:10	9:30	10:00
14:45	14:50	15:30	16:00

DONOSTIA-LESACA

astelehenetik-ostiralera (besta egunetan ezik)			
DONOSTIA	IRUN	BERA	LESACA
13:30	14:00	14:20	14:30
19:00	19:30	20:05	20:15
larunbatetan (besta egunetan ezik)			
13:00	13:30	14:05	14:15
17:00	17:30	18:05	18:15

IRUN-GASTEIZ LESACA-GASTEIZ

astelehenetik-ostiralera			
6:30	8:45	7:10	8:45
egunero			
6:30	8:45	15:30	17:45
8:00	10:15		
13:30	15:45		
20:00	22:15		

IRUN: RENFE geltokian 943 616763
GASTEIZ: Autobus geltokian 945 244626

IRUNA-IRUN

astelehenetik-ostiralera eta besta egunetan						
IRUÑA	ORNOZ MUGAIRI	DONEZTEBE	LESACA	BERA	IRUN	DONOSTIA
18:00	18:30	18:40	19:00	19:10	19:30	
larunbatetan						
16:30	17:00	17:10	17:30	17:40	18:00	

IRUN-IRUÑA

astelehenetik-larunbatera						
DONOSTIA	IRUN	BERA	LESACA	DONEZTEBE	ORNOZ MUGAIRI	IRUÑA
	8:00	8:20	8:30	8:50	9:00	9:30
igande eta besta egunetan						
8:30	9:00	9:20	9:30	9:50	10:00	10:30

Berako bestak

uztailak **31** ORTZIRALA

19:00 Imanol Zubieta "Fash" Futbito Txapelketa. Finala eta 3. eta 4. posturako partidak. Toki Ona Kiroldegian. Gero afaria eta sari banaketak afarian bertan. Antolatzailea: Berako Gazteak. **20:30** II. Lorez apaindutako Leiho eta Balkoi lehiaketako sari banaketa. Lekua: Herriko etxea plaza. **20:30** Txosna ideiera. Gaztexteban Igoera. Jokoak. Txistor-jatea

abuztuak **1** LARUNBATA

16:00 4X4 Autoen ikuskizuna, Postan. **16:00** Plater Tiroa Foso Modalitatean. **20:00** Gure Txokoa Dantza Taldearen jaialdia Eztegara pilotalekuan. **23:00** Kontzertuak: Willis Drummond, Ama Say eta Gaztetxe Band Alzateko plazan. **0:00-3:00** Alkoholometro postua Alzateko plazan.



abuztuak **2** IGANDEA
Bezpera

8:00 Zakur txapelketa. **12:00** Herriko etxetik altxaferua botako da eta ezkil-jotzea izanen da. **Ondotik** Erraldoiak eta buruhandiak karrikaz karrika. **17:00** Izadi Txarangak San Jose zahar etxean joko du. **18:00** Kukaña Illekuetan, Izadi Txarangak alaiturik. **19:00** Berako txistularien kalejira. **20:00** Euskal errepresaliatu politikoei elkartasun Kalejira eta senitartekoen omenaldi elkarretaratzea Alzateko plazan. **21:00** dantza herrikoiak Ezpelur gaiteroekin Alzate karrikan. **00:00** Dantzaldia AMETS ILUNAK eta LAKET taldeen eskutik Alzateko plazan. **Egunean zehar** Izadi Txaranga ariko da karrikaz karrika.



Mikkala ongi pasa bestaki
HALURRENTZAKO ARROPA ETA OSAGARRIAK
Bidasoa, 41 • BERA • 948 630 560

SEGUROS BILBAO
Grupo CATALANA OCCIDENTE
Iriarte-Etxandi
ortekarritza-abiokolaritza
Herrikoetxea, 1 • BERA • 948 631 103 • Fax: 948 630 305

IRIGOIEN ELORTZA
ARRAINDEGIA
Ongi pasa bestaki
Enkarguak hartzen dira
948 630 981 • 620 828 757
619 441 997
BERA

mendaur Karrozeria Industrialia
Erremolkeak • baskulatuak
erdi-erremolkeak
Zubi-kalea • Alzateko Ind. Olinja • LESAKA (Nafarroa)
Telefonoa: 948 621 629 • Fax: 948 625 109
www.carmendaur.com / mendaur@carmendaur.com

ZUBIONDO
Jatetxea
antardotegia jatetxea
Alasta karrika
Tel: 948 630 672
BERA NAFARROA

AMEKA
Telefonoa: 948 630 492
San Esteban, 17
31780 BERA
ONGI PASA BESTAKI
Herriko etxetik altxaferua botako da eta ezkil-jotzea izanen da.
HERREMINTA ELEKTRIKOEN KONPONKETA
PROFESIONAL ETA BIKOLAJA BAINO GEHAGO
NAHI DUTEN GUTIEI ZUZENDUTAKO BURDINDEGIA

ONGI PASA BESTAKI
D
«««««H I R U K I D E»»»»»
Eguzki panelak • Iturgintza
Industria mantenimendua •
Aire egokitua •
T. 948 625 395
Zalen Industrialdes 42 B - 15 • 31780 BERA (Nafarroa)
Fax: 948 625 392 • email: zerbizua@terra.es



PRIETO
tabakodenda

egunkariak, aldizkariak...

Legia, 1 • BERA • 948 631 246

SUSANA JANARIDENDA

ongi pasa bestak!

Fonien Plaza, 6 • BERA • Tfnoa: 948 631 313

Jorge Sopena Colombera
ODONTOLOGOA

Colegiado 223

Itasa, 1-1^o

31780 BERA (Nafarroa)

Tel.: 948 63 06 47

ZENTRU
LOGOPEDIKO-PEDAGOGIKOA

Nekane Ordoki Gonzalez

- ★ Ahozkapen zailtasuna ("erre" gaizki erano, "aceo" e...)
- ★ Gauzak kontatzeko zailtasuna
- ★ Irakurketa arazoak
- ★ Idazketa arazoak
- ★ Toteltasuna "tartamudeo"
- ★ Ahots arazoak
- ★ Arnasketa arazoak

Euskaraz/Erakaraz

646 894 332
BERA

KARLOS ALZUGARAY
OSTEOPATIA
FISIOTERAPEUTA

ongi pasa
bestak!

Itzea, 20 behea
31780 BERA
T. 948 630 187
M.607 853 205

karlosalzugaray@telefonica.net

L
Semper
autoeskola

GIDA BAIMENA EUSKARAZ
KURTISO INTENSIBOAK
ESKAINZA BEREZIAK

Besta on batzuk
pasa itzazue!

Tel/Fax 948 630 298 • BERA



Javier Manterola

Tekniko instalatzailea

• iturgintza

• gasa

• kalefakzioa

629 449682

Iturlandeta 4, behea • BERA

MARMOLES
marmolesalkaiaga@telefonica.net
ALKAIAGA, S.L.

Gisa guzietako lanak marmol eta granitoan

ONGI PASA BESTAK!

Alkaiaga Ind. Ziobi, 11 (sarrera Beratik) • LESAKA
Tel: 948 631 215 Faxa: 948 631 063
Mug: 609 207 731

ML

ESTETIKA - ILEAPAINDEGI MISTOA

depilazio elektrikoa
ileapaindegia - solarizama
depilazioa - masajea
manikura - pedikura

ongi pasa besta! ordua eskatu

Iturlandeta, 4 BERA T. 948 630 453

ELEKTRIZITATEA
PROIEKTU ELEKTRIKOAK

MARITX

ETXE TRESNAK

ONGI PASA BESTAK!

948 630 592 • Legia, 23 • BERA



DUUE

ileapaindegia
[948 631 493]

ileapaindegiaestetika zentrua
Julio Caro Baroja • Bera

estetika zentrua
[948 630 309]



Hotz komertziala
eta industrialia

ongi pasa bestak!

INDARRI

AIRE GIROTUA

Tel: 948 630 896
Mug: 639 103 305 BERA

ongi pasa bestak!

948 631 218

Kanttonberri 1, BERA

KATEA-BIKE

BIZIKLETA SALMENTA
ETA KONPONKETA



Aintzinaldeak, angeluak, orma antzinakoak
lehoak, ateak, arkuak, pilareak,
tximiniak, erlatzak, moldurak
zokaloak, hilariak, marrazkiak

ongi pasa bestak!

Tel. 948 631 317 • Faxa. 631 587
Itungo errep. BERA
www.antzuzelai.com • info@antzuzelai.com

Berako bestak



abuztuak **3** ASTELEHENA
San Esteban eguna

9:30 Herriko txistulariek argisoinua. **10:30** Udalbatza, txistulariak eta makil dantzariak, Berako bandera aitzinean dutela, Herriko Etxetik San Esteban elizara abiatuko dira, Esteban Donearen ohoretan eta Berako abesbatzak lagundurik emanen den Meza Nagusia aditzera. **Ondotik** Gure Txokoa Dantza Taldeko kideek Berako Makil dantzak eta Bordon dantza dantzatuko dute txistularien laguntzaz. **Gero** Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsoariak kantatuko dute. **17:00** Ezpelur gaiteroek San Jose zahar etxean joko dute. **18:00** Gure Txokoa Dantza Taldeak Berako Aurrekua dantzatuko du Herriko Etxeko Plazan txistularien laguntzaz. **Ondotik** Berako Bandaren kontzertua herriko etxeko plazan. **19:30** Laiotz taldearekin dantzaldia Altzateko Plazan. **21:00** Dantza herrikoiak Altzateko karrikan (fandangoa, arin-arina, Larrain dantza,...) gaiteroen laguntzarekin. **00:00** Su artifizialak. Matzada futbol zelaitik, Zaragozana Pirotekniaren eskutik. **00:30** Dantzaldia LAIOTZ taldearekin Altzateko Plazan **Egunean zehar** Izadi Txaranga ariko da karrikaz karrika.



ARTIEDA ESTANKOA
Estancia Nº 3
Cava de Puros

Plaça Urbieta 1 - 48901 Argemua
21700 BERA
Tel: 948 631 637
Fax: 948 631 634
www.artieda.com

Haritza
belardenda

MASAJISTA
MEDIKU NATURISTA
KONSULTA

Legia, 1 behea
31780 BERA
Tel.: 948 63 06 52

besta zoriontsuak opa dizkizuegu

Botxo

botxostatua@euskalerrria.org - 948 630 052

orri gisa bestak

edurne
HAUR ARROPADENDA

Altzate, 20 • BERA • 948 631 491

ELKAR
liburudenda

Testu liburuak
aldizkariak eta prentsa
eskolako materiala

Eztegara, 18 • Tfnoa: 948 630 691 • BERA

ERROTAZAR

harategia

Bertako
produktuak
www.errotazaratasanos.com

Eztegara, 3 • BERA • T: 948 630 068 • F: 948 631 057
e-posta: errotazar@telefonica.net

IKUILU
ostatua

pasa
besta
ederrak!

© 948 630 749

BERA

AVFOA
OSTATU JATETXEA

ongi pasa bestaki!

Plater kontingiak
Pitxekak • Bokatak
Mozak • Hostak
Eguneko menua
Ezazu ezazu beste jentzia

948 631 584 - 606 804 355 - BERA

Pizzio
tahako-denda 2. zbk
ongi pasa bestaki!

Alzate, 26 - Tel. 948 630 788 - 31780 Bera

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK JAURENA

Julio Caro Baroja, 6 behea
31780 BERA (Nafarroa)
Tel/Fax: 948 631 217

cenor Etxetresnen denda

IZARRA BENTA

ONGI PASA BESTAKI

Ibardingoa gaina
Tel.: 948 631 319

BERA

FOTO-IRAZKIZIK
GOIKO ongi pasa

Alzate, 31 - BERA
Tfn: 948 630 505
Mugiketa: 609 663 072
foto@goiko.com



Modelos BIDASOA Ereduak

Bidasoa karrika 76 - 18. lokala
31780 BERA • Tel. 948 625 166
Modelosbidasoa@euskalnet.net

Errandonea s.l.
errandonea.com

Ziobi, 9
Alkaiaga Ind.
31789 Bera

Iñaki Errandonea
Tel.: 948 630 982
Fax: 948 631 142

Ongi pasa herriko bestak!!!

CARROCERIAS ALZATE

TXAPA eta PINTURA

Alkaiaga Ind. Aiestra, 4 - Tel.: 948 630 373 - BERA

BORTZIRI UNSION ANAIAK
Sukalderako altzariak

Berrau etaia • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 220 891 • Fax: 948 637 511

ostatu - jatetxea
BETI-JAI

- Eguneroko menua

Besta on hartzeak pasat!

Askain karrika, 1 - Tfnoa: 948 630 810 - BERA

benta berri

OSTATUA
JATETXEA
JANARIDENDA

ONGI PASA BESTAKI

Ibardin
948 630 708
BERA

BAXERRI
Lorategien zainketa
Mendiko lanak

Tfnoa:
616 243 530

Albisuhortzklínika

Osasunagailu Medika - Xil. Zha 945

Ordua eskatzeko deitu:
948 631 631

Iparralde 3 - 2.azk 31780 Bera

ALTZUGUREN BENTA

JANARIDENDA / OROIGARRIAK

GORA SAN ESTEBANAK!

948 630 734 • IBARDIN • BERA

the cotte

Etxeko tresnak • Jostailuak
Opanak • Garbitasunekoak
Eskolako materiala • Jantziak
Ferreteria • Bolleria
Izozkiak • Goxokiak

Karitonberri, 5 • 31788 BERA • Tel. 948 625 285

Berako bestak



abuztuak 4 ASTEARTEA

9:00 Irats taldeko trikitilariak Dornakun ibiliko dira, eta Ezpelur gaiteroak Zalain auzoan. **10:00-14:00** Haurrentzako poney-ak Illekuetan. **10:30** Plater tiroa, ehiza ibilaldia modalitatean beratarrentzat. Ondotik txistor jatea dezentzat. Antolatzailea: Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea. **11:30** Berako igerelekuan haur eta gazteentzat XXII. Igeriketa Txapelketa. Antolatzailea: GureTxokoa Elkartea. **13:00** Kukaña, Izadi Txarangak alaiturik. **14:00** Gazte Bazkaria. Kaxerna Gaztetxean. (Sarrerak Katakua eta Errekalden) Bertso desafioa: Silveira eta Ministro; Soto eta Julen Zelaietaren kontra. **18:00** Irats Trikitilariak San Jose zahar etxean joko dute. **18:00** Aspeke pilotari profesionalen arteko partidak Eztegara pilotalekuan. Sarrera: 25 eurotan Puri-enean salgai. **18:00** Haurrentzako ikuskizuna: Atxikistan kanpanolue martxan (Eidabe) Altzateko plazan. **Ondotik** Haurrentzako Apar Besta eta Trikitilariak. **19:30** Migattuak Herriko Etxeko Plazan. **20:00** Bertso poteoa: Irats taldeko trikitilariekin: Xabier Silveira, Haritz Etxeberria 'Ministro', Julio Soto eta Julen Zelaieta. Errekaldetik hasita. Antolatzailea: Bortzirietako Bertso Eskola. **21:00** Dantza herrikoiak Ezpelur Gaiteroekin Altzateko karrikan. **23:00** Reggae Gaua: Kontzertuak eta Djak: Ras Miguel eta Selektah Stepi. Altzateko plazan. Antolatzailea: Berako Gazte Asanblada. **Egun osoan** Izadi Txaranga karrikaz karrika ibiliko da.



ILAIK
Ilcapaindegia
Kanttonberri, 4 • BERA • Tfnoa: 948 63 14 27

kalotxa
OPARIK ERAGARRIAK
Laga 42, 31780 Bera (Nafarroa) • Tel. 948 631 518 • kalotxa@gmail.com

ITURRIONDO
ZURGINDEGIA
Beltzak • estrukturalak • terrak • parketak • atak • leihoak...
Zarautz 7 • BERA • 948 631 400 • Fax: 948 625 330

JERRE-GORTEGIA
Besta gozo eta zoriotsuak opa dizkizuegu
Altzale, 19 • BERA • Tel: 948 630 786

elika
Dietatika eta elikadura
Bideratzen dituzte eta helburua da...
VINO PRESU NESI BAI!

KORTA
METALIKOA
Bidasoa kalea, 76 - 17, atea
Tel-Faxa: 948 631 651
BERA

Kotoi
Kortinak Estoreak Etxerako etxerantz esagarriak
Bidasoa karrika 14 • 31780 Bera T.F. 948 631 660

reformas LASTER
berrikuntzak
Etxepare, 14
31780 Bera - Nafarroa
Tel. 948 633 367 • Fax 948 633 362
www.laster@gmail.com
ongi puztu bestak!

Azalea
lorenzenda
Altzale, 26 • BERA
Tel. 948 63 11 21

ERREKALDE
 PASTEL Kalkulatuak
 Ongi pasa bestak!
 Tfn: 948 630 254 BERA

ongi pasa bestak!
bertarudi
 hamiseh material guztien inprimatzen dugu formate handiko inpresioak
 ESKRIBITZA: 948 631 115
 Eztegi 26, 0 31780 BERA/tel: Fax: 948 631 615 bertarudi@telefonosnet

PIKABEA
 Tonatzaia
 zentrala
 ongi pasa bestak
 Askain, 7 - BERA
 T. 948 631 284

LABEZAR
 Eztegiara, 18
 948 631 076 • BERA
 PASA ITZAZUE BESTA ON BATZUKI!

Elizalde Benta
 Besta on batzuk pasa
 Ibardingo gaina • 948 631 024 • BERA

UDAKO ETXEA
 Benta - Ostotua - Jotetxea
 Larun - BERA
 Tel.: 948 63 11 15
 Tel.: 00 34 948 63 11 15 (Iparraldetik)
 Ongi pasa bestak!!

BERATARRA ERAIKUNTZAK
 Leitzako b. 66 - 8. blokea 2C
 DONEZTEBE
 Jose Ignacio Maritorea Larralde
 670 489 337
 ONGI PASA BESTAK



SORKUNDE BENTA
 Ongi pasa herriko bestak!!
 948 630724 • Ibardin • BERA

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
 Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
 Tel. Fax: 948 63 10 27

Shota
 Pintura Dekorazioa
 Barrualdeak - Fatxadak - Obra berriak
 Dekorazioan berrikuntzak...
 Mendigorrigaraia Baserrira - Garaitarres auzoa
 Tfnoa: 948 63 14 89 - Mug: 668 43 39 71
 BERA

Tximistindar
 ELEKTRIZITATEA - INSTALAZIOAK
 ETXE • INDUSTRIA
 ARGIA APAINGARRIAK
 EGUZKI PLAKAK
 Ongi pasa bestak!!!
 Askain, 12 - 4.Ek • 31780 BERA
 948 63 08 54 / 948 63 14 52
 639 608 034 / 639 125 046

Pinturas Pikabea Molinera
 200 koloren baino gehiago lortzen ahal duen makina 10 minututan zuk nahi duzun kolorea
 Esmalteak • Bernizak • Lasure urpintura • Margo klase guztiak
 Bondex urpintura • Esmalteak eta pintura plastiko ekologikoa
 Zalain auzoa, Aceralia fabrikaren parean • BERA • T. 948 630 240 M. 627 622 333

Berako bestak

abuztuak **5** ASTEAZKENA

9:00 Irats trikitilariak Suspelan ariko dira eta Ezpelur gaiteroak Kaule auzoan. **11:00-13:30 / 16:00-18:30** Puzgarriak Eztegara pilotalekuan. **12:30** Erraldoiak eta buruhandiak Ezpelur gaiteroen laguntzarekin ibiliko dira Agerran. **13:00** Kukaña Illekuetan. **14:00** Kantu bazkaria Altzateko pilotalekuan. Sarrera: Helduak 15 euro, haurrak 10 euro. Salgai uztailearen 26a arte Botxo, Katakua eta Xuga ostatueta eta Puri-enean. **17:00** Izadi Txarangak San Jose zahar etxean joko du. **18:00** Kukaña, Illekuetan. **19:00** Mariatxiekin (Dolores Sanjuán eta Marichi Tequileño) kalejira Illekuetatik hasita. **19:30** Migattuak Herriko Etxeko plazan, Izadi Txarangak alaiturik. **21:00** Dantza herrikoiak Ezpelur gaiteroekin Altzateko karrikan. **Ondotik** Suzko zezena aterako da Altzateko karrikan. **00:00** Dantzaldia Patxi eta konpainiarekin Altzateko plazan **Egunean zehar** Izadi Txaranga ariko da karrikaz karrika.



abuztuak **6** ORTZEGUNA

9:00 Irats trikitilariak eta Ezpelur gaiteroak Garaitarreta eta Suspel-ttikin ibiliko dira. **10:30** Herriko pilotarien pilota partidak. Benjaminak, alebinak, infantilak eta helduak. **12:00** Migattuak Ezpelur gaiteroekin. **12:00** Erraldoiak eta buruhandiak Altzateko Herriko etxera, Izadi Txarangarekin. **14:30** Herri Bazkaria Altzateko frontoian. **17:00** Ezpelur gaiteroek San Jose zahar etxean joko dute. **Ondotik** Kukaña Illekuetan. **19:00** Kalejira Swing Da Bahia Taldearekin Illekuetatik Mukixura. **21:00** Dantza herrikoiak Ezpelur gaiteroekin, Altzateko karrikan. **Ondotik** Suzko zezena aterako da Altzateko karrikan. **23:00** Dantzaldia Jalisko Band taldearekin Altzateko Plaza. **0:00** Gaztetebean Jautsiera (Gizajoa Ni). **Egunean zehar** Izadi Txaranga ariko da karrikaz karrika.



carroba
gasteluzko okreto
7/20 ezelegia 25 bako 1.948.63.09.99
9/700 berakomunak www.berakomunak.net

ZJ
Zalain
jatezua - hostala
ongi pasa bestak!
14 logela bainu eta TBekin
Zalain auzoa 2/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

Lirain
ongi pasa bestak!
Ileapaindegia 948 630 760
Estetika 948 630 286
Iparralde, 1 • BERA

ongi pasa bestak!
TXOMIN IRAZOKI
FISIOTERAPEUTA
MASAJEA
BIZKORTZE ARIKETAK
ESKU TERAPIA
Eztegiak 29 bakoia • BERA / Pandoia, 7 • DORRIZTEBE
948 631 391 • 670 471 200

ugaldea
osasun eta onarpena
Rafa Pombar Sainz
gaiterak eta laguntza
ongi pasa bestak!
Bakoia 29 bakoia, 7
07002 Bakoia
tel: 948 631 391
faksa: 948 631 391
e-mail: rafapombar@ugaldea.net



GORA BERAKO BESTAK!

Agara Kirolak Alimentación Telletxea Atzugaray Fisioterapeuta Ansoñea Hostal Arriñeda Lanceria Arturo Asador Sidreria Zubiondo Asesoría Ugaldea Ayla Argakargunza Bar Lixoia Bactango S.L. Benta Yasola Bera Informativa Beti Jai ostatu-jatetxea Bilasko Gaitaria Bortzirudi Botxo Ostalua Drogueria Guria Eburna Elkar Paperdenda Elortari Arriñategia Errekalde Ostatura Tolosa Nº 3 Arriñeda Estando Prieto Estival Tour Bataak Expert-Bortziriak Ferretaria Marala Floristeria Azalea Fontanaria Carlos Foto Goiko Frutas y Verduras Estañonosa Global Language School Goxo Laxandera Goya Hotel Oberul Igone liburu-denda Ikotxo Olatosa Ilaiak Ileapaindegia Jaxxa Sazategia Kalash Joyeros Kalotxa Katea Bike Kirolak Zela Kotoi Labazar Okandegia Martutzak Oroz Jaxariondo Ostargi Optika Pikabea Horategia Puri-enea Sarobe Bkindegia Seguros Generales Sempere Autoparkola Susana Janaridenda Txalupa Arraindegia Txepetxa Clínica Veterinaria Txontxo Iratxe Fisioterapeuta Xirgil Ileapaindegia Yoon Ileapaindegia Duue Ileapaindegia Larun Gait Ferreteria Ameka Auzoa Ostatu-jatetxea



Zerbitzua, Prezioa eta Kalitatea ONGI PASA SAN ESTEBANAK !!



Web orrialdeak
Diseinatzen ditugu.
Kontsulta ezazu
gure Tarifak
dendan



Material Informatikoa
Berziklatzen dugu
Servicios Ecologicos de
Navarra-ren bitartez
0,50€/kg



CD-DVDetan
imprimaketak egiten
ditugu. Pertsonalizatu
zure Diskak 2,50€tan
CD/DVD + XIFRETSUTZA + IMPRIMAKETA


PSP SLIM BELTZA
180€


POLAROID 1834
8.0 Megapixel
3x Zoom Optikoa
4x Zoom Digitala
PictBridge-kin
kompatiblea
79,90€


SONY S.1
SRSD511 501W
82,80€


BENQ E1020
10.0 Megapixel
3x Zoom Optikoa
5x Zoom Digitala
PictBridge-kin
kompatiblea
Li-on Bateria
99,60€


NINTENDO WII
+ WII SPORT
249,80€


SD Memoriaak
2 GB: 7,20€
4 GB: 9,60€
8 GB: 17,00€


VERBATIM
MINI-DV 60
2€/Unitatea

VENTA MIRENTXU



Janaridenda • Jatetxea • Bisuteria
Oroigarriak • Arropa denda

Ibardingoa gaina • tel. (0034) 948 630 717 • Bera (Nafarroa)

LURRINDENDA

Arropa denda eta osagarriak



BOSS
HUGO BOSS



LACOSTE



REPLAY



Burberry



ENERGIE



MISS SIXTY

GURU

Ibardingoa gaina • tel. (0034) 948 630 558 • Bera (Nafarroa)

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Sunbillako bestak

OREBERRI
okindegia
ongi pasa bestak!
690961616 - SUNBILLA

ITTURBURU
OSTATUA
ongi pasa bestak!
Kappela, 23 - SUNBILLA - T. 948 451 703

Lizun
GAZTANDEGIA
Estadio Arri Gazte
Petxenekoborda - SUNBILLA - Tfnoa: 948 450 862

MARIA JESUS
HARATEGIA
ONGI PASA BESTAK!
Kamika Nagusia, 1 - SUNBILLA
Tfnoa: 948 451 530

FONDA OSTATUA
Donibane Karrera 2 - 31791 Sunbilla - 948 450 180
ongi pasa bestak!

Tel: 948 450 773
Mugikorra: 619 416 959
Auloa Baserría - SUNBILLA
ongi pasa bestak!
ESPELOSIN
eraikuntzak


SUNBILLAKO UDALAK
Besta zoriontsuak opa dizkizue
sunbildar eta bisitari guztioi
GORA SAN TIBURTZIO!

abuztuak 8 LARUNBATA

19:00 toka-aitzur-zartagin txapelketa. **23:00-01:00** kontzertua KASKEZUR eta SKATU taldeekin **1:00** dantzaldia GARRAXI taldearekin.

abuztuak 9 IGANDEA

19:00 VIII. Ramon Latasa saria.



abuztuak 10 ASTELEHENA
Bezpera

18:00 gizon proba eta herritarren arteko herri kirol desafioa. **20:00** suzuria herriko etxetik **Ondotik** kalejira gaitero, buruhandi eta erraldoiekin eta "impresantables" txarangarekin. **21:00** zopak Ulibeltzak elkartearen Impresantables txarangarekin. **Gauetz** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.



abuztuak 11 ASTEARTEA
Tiburtzio deunaren eguna

9:30 argi soinuak gaiteruekin. **11:00** Meza Nagusia Tiburtzio Deunaren ohorez. **12:15** sunbillako haur dantzariak eta luntx-a plazan. **18:30** herri kirol jaialdia profesionalekin plazan. **22:30** su artifizialak Astondoa piroteknia-ekin. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia JOXE ANGEL akordeoilariaekin.



abuztuak **12** ASTEAZKENA
Haurren eguna

9:30 argi soinuak trikitilariekin. 10:30-13:15 pottokak. 11:00 txirrindulari proba. 12:00 akordeoilarien emanaldia. 22:30 Jokulandia. 17:00 trikitixa jaialdia. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia Agerralde akordeoilariarekin.



abuztuak **13** ORTZEGUNA
Koadrilen eguna

Bestalde, Aurkidiko bidean egitekoak ziren lanak ere akitu dira. 65.588 euroko aurrekontuarekin, Udalaren aurtengo inbertsio nagusien artean zegoen bide hori moldatzeko proiektua eta Sasoi enpresak egin dituzte lanak dagoeneko. Nafarroako Gobernuaren la-

guntzarekin egin da.

Herriko Ostatuan zerbitzari bila

Herriko Ostatuan bestetan lan egiteko esperientzia duten bi zerbitzariaren bila dabilta. Interesatuak 948 451841 telefonora dei dezatela.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joaldun gaztetxoak Erreterian

Duela urte batzuetako ohitura berreskuratz, joaldun gaztetxoak berriz ere Erreterian izan dira joareak jotzen. Astearte honetan, uztailak 21, Madalena jaien harira, hain zuzen. Joareak hartu eta hantxe joatekoa zen 6-8 lagunekoa koadrilla. Lehen ere harat joateko ohitura zuten gaztetxoek, baina azken aldian, gonbiterik jaso ez eta joan gabe geldituak ziren. Aurtent, ordea, berriz izan dute aukera.

GIZARTEA

Bortz urte bete ditu Dizdira Elkartek buru eritasun larria dutenei laguntzen

ttipi-ttapa

2004ko ekainean ireki zituen bere ateak Dizdira Elkartek zonaldeko buru eritasun larria (eskizofrenia eta trastorno bipolarra) batez ere duten pertsonen eta beraien familiartekoei zerbitzua eskaintzeko. Hortarako Anasaps (Buru Osasunaren Nafarroako Elkartera) atxiki ziren. Felix Osés (familiarterkoa) eta Ainhua Arburua (psikologoa) izan ziren proiektua aitzinera atera zutenak. Hasi hartako helburuak bazkideak bilatu, dirulaguntzak eskatu eta Arreta Zuzeneko Programa eta Denbora librekoa martxan jartzea izan ziren. Ez zen erraza izan, baina urte batez langogorra egin ondoren, lehenengo urtean 60 inguru bazkide izatera eta bertze hainbat kontsulta eta beharren bilketa egitera ailegatu ziren.

Ibilbide honetan, 2005ean Eskuhartze Psikosozialerako programa martxan jarri eta Elizondon Errehabilitazio Psikosozialerako Zentrua edo Eguneko Zentrua ireki zen. Horrez gain, 2006an Etxalarko Larraburua etxebizitza komunitarioaren erabilerarako lankidetzaren hitzarmena sinatu zen. Etxean lan egiteko Edurne Elizagoien psikologoa kontratatu zen. 2007 eta 2008an programa guzti hauek mantendu ziren, baina

langilegoan aldaketa batzuk izan ziren eta Elizagoien gelditu zen Dizdira Elkarteko arduradun eta langile bakarra.

Gaur egun Anasapsen Iruñean eramaten dituen programa berdina eramaten dira Dizdiran: Arreta Zuzena goizetan Doneztebeko egoitzan; esku-hartze psikosozialerako programa arratsaldetan zonalde osoan; denbora libreko programa hilean behin egindako ataldiekin eta sentsibilizazio eta dibulgazioa, poesia errezitala, ipuin kontalaria...

Edurne Elizagoien da langile bakarra, eta Felixek batzordean utzitako tokia Egoitz Telletxea familiarterkoak hartu du. Egoera ekonomikoari dagokionez, Nafarroako Gobernutik hartzen ditu elkarteak dirulaguntza nagusiak, baina aldi berean, Elizagoienek dioenez «hagitz garrantzitsua da bazkide berriak izatea eta zonaldeko instituzio eta udalek beraien aportazioak egitea elkarte mantentzeko». Bazkide egiteko ez da elkartera deitu bertzerik egin behar: 948451 443.

Etorkizuneko proiektuen artean hiru aipatu ditu Elizagoienek: egungo programak mantentzea eta areagotzea; parte-hartzea bultzatzea interesatuak eta bazkide berriak egiteko eta azkenik, denbora libreko programa indartzea.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> Langile autonomoak Nekazariak eta mendi langileak Nominak eta Aseguro Sozialak Lan-Kontratutarako laguntzak Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> Diru-laguntza ezberdinak Kontabilitateak IVA eta IRPF Emenda aitortpenak Elbarratasun eta jubilazio espedienteak Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
--	--

artekari@artekari.com

LESACA: Bittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURILATA: Lo Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

ITUREN

Giro ederrean hurrengo urtera arte agurtu ditugu bestak

Adin guzietako herritar zein kanpotarrek gozatu dute

Arkaitz MINDEGIA

Uztail hondarra iristean, jada opor usaina etortzen da herri guztietara. Gurera tristura etortzen da, dagoeneko bestak pasatu baitira. Giro onean joan dira, urtero bezala, adin guzietako ekitaldiekin. Haurrentzako puzgariak, herriko dantzarien erakustaldia, dantzaldiak, herri kirolak eta bertze tokietan bezala, herri bazkariarekin akitu. Aurten Irazu eta Zubeldia bertsolariak egon ziren herri bazkarian eta Miriam eta Arkaitz trikitilariak alaitu zuten bazkalondoa. Ondotik, zurkapotea prestatu eta ohiturari jarraituz, herrian barnako itzulia ez zen faltatu. Dagoeneko guttiago geratzen da datorren urteko bestetarako.

Turistak herrian

Uda ailegatzeko den bezala, herriko landa-eteak eta hostalak bete egiten dira eta herrian

kanpoko bisitak nabariak izaten dira. Krisiak krisi, aurten ere kanpoko jendea etorri da gure artera.

Dirulaguntza herriarentzat

Nafarroako Gobernuak 2009-2012 Toki Azpiegitura Planean, hainbat proiektu diruz lagunduko ditu gure eskualdean. Itureni dagoenez, bi obra subentzionatuko ditu: depositutik ur sarera ur hodiak berritzeko 105.399,13 euro onartu ditu eta ur deposituetarako bideak hobetzeko, berriz, bertze 108.122,54 euro.

Ander Erasun 23 urtez azpikoen finalean

23 urtez azpikoen Urrezko Aizkorako finala jokatu du Ander Erasunek ortziral honetan, uztailak 24, Azpeitian (Gipuzkoa). Aitzol Atutxa izanen du aurrez aurre, 20:00etatik aitzinera Izarraitz frontoian.



ARGAZKIAK: KOLDO ALDUNTZIN

Sanferminetan bi txapel herrira

Urtero bezala, Iruñeko Sanferminetan herri kirol txapelketak jokatu ziren aurten ere, eta Iturendik Joakin Aioroa eta Maika Ariztegi han izan ziren. Maika Ariztegi Nafarroako Ingude Altxatze Txapelketan parte hartu zuen, baita txapela eskuratu ere, 82 altxaldirekin. Bertzalde, Joakin Aioroak ere Nafarroako Ingude Altxatze Txapelketan parte hartu zuen. 91 altxaldi egitea lortu zuen eta lehen aldiz txapela jantzi zuen. Ander Erasun aurtiztrak ere bere erakustaldia egin zuen Sanferminetan.

STIHL eta VIKING aukeratzen duzunean makinari hoberena baino askoz ere gehiago eskuratuko duzu.

Zure lorategirako behar duzun guztia zuregandik oso hurbil dagoen STIHL eta VIKING-en Banatzaile ofizialean aurkituko duzu

BANATZAILEA

José Luis San Miguel

DONEZTEBE • Tel./Fax.: 948 450 711

GAZTELU

Santo Domingo bestak uztailaren 31tik abuztuaren 4ra

Igande eguerdian aizkora apustua izanen da eta arratsaldean trikitixa erakustaldia

Ortzirala 31

20:00etan suziria.
Ondotik kalejira.
21:00etan zopak ostatuan.

Larunbata 1

10:00etan kalejira.
Arratsaldean puzgariak eta segidan txokolatada. **Arratsaldez eta gauz** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

Igandea 2

10:00etan kalejira.
13:00etan aizkora apustua: Aitor Senosiain Jon Rekondoren kontra.
17:30ean Erreka pilota eskolakoen pilota partidak. **18:30ean** trikitixa erakustaldia. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia AGERRALDE arekin. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia AGERRALDE arekin. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia AGERRALDE arekin. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia AGERRALDE arekin.

Astelehena 3

9:00etan gosaria plazan. **14:00etan** herri bazkaria. **Ondotik** dantzaldia ANTXETA taldearekin. **22:00etan** afaria.

Asteartea 4 Santo Domingo Eguna

10:00etan kalejira txistulariekin. **11:30ean** Meza Nagusia. **Ondotik** salda beroa Herriko Ostatuan. **17:00etan** mus eta mahai-joko txapelketa. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia AGERRALDE arekin. **Ondotik** GAIXOA NI.

ARGAZKIAK: JUANA MARI

Goiko argazkia 2005eko trikitixa jaialdian aterakoa da; **behekoan, berriz, neska-mutikoak ageri dira.**



ERREZETA BILDUMA
Entsaladak · Lekaleak · Barazkiak
Zopak · Arrozak · Pastak · Arrainak
Itsaskiak eta Moluskoak · Haragiak
Frutak · Postreak

www.ttipi.net

 Gure Haragia
Nuestra Carne

 TXARUTA, S.L.
Iturgintza · Berokuntza · Gasa
ongi pasa bestak!
948 45 17 28 · 659 77 00 15
GAZTELU

ELGORRIAGA

Imersoko 1.200 lagun hartuko ditu bainuetxe berriak urtea bukatu arte

10,2 milioi euro kostatzen dira lanak eta Gobernuak 2 milioi bideratu ditu

ttipi-ttapa

Inaugurazio ofizialaren zain, ekainaren 28az geroztik, martxan dago bainuetxe berria. Hamar urteotako lanaren emaitza izan da, izan ere, egokitze lehen urratsak 1999an egin ziren. Egitasmoa errealitate bihurtuta, dagoeneko lehen erabilzaileak balnearioa ezagutzeko aukera edukitzea eta urte bukaera bitarte 1.200 lagunendako lekua hitzartu dute Imersorekin. Balnearioaren barne, putzu eta igerilekuekin batera, hiru eraikin daude, bakoitza 25 logeekin.

40 lagunek egiten dute lan bainuetxean, eta horrez gain, garbitasun zerbitzuak azpikontratuak dituzte. Bainuetxeo zuzendaria Lorena Galarregi herritarra da.

6.000 metro koadroko bainuetxea egiteko, 10,2 milioi euroko inbertsioa egin da eta Nafarroako Gobernuak kasik bi milioi jarri ditu, 2004, 2005 eta 2006ko aurrekontuetan. Hiru eraikunderen elkarlanaren emaitza izan da: Espainiako Gobernuo Sustapen Ministerioa, Nafarroako Gobernu eta Udala.



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Ekainaren 28az geroztik hainbat bisitari hartu ditu bainuetxeak.

Lerro hauek idazterakoan, inaugurazio ofiziala noiz izanen den ez zegoen zehaztua, baina uztailaren 3an, Nafarroako Gobernuo ordezkariak bisitan izan ziren. Juan Ramon Corpas Kultura eta Turismo kontseilaria eta Carlos Erce Turismo zuzendaria etorri ziren. Corpas gustura agertu zen bainuetxearekin: «Fiterorekin batera, Nafarroako bainuetxeen turismo eskaintza aunitz zabalduko du, baina batez ere, eskualde-

rako garrantzitsua izanen da, lanpostuak sortu dituelako». Egun berean, Nicolas Iribas bainuetxe kudeatzaileak jendeari «inguru zoragarriak, gastronomiaz eta uren kalitateaz gozatzera etortzeko» gonbitea luzatu zion.

‘UR OSASUNGARRIA’

Bainuetxera ailegatzeko den urari dagokionez, Inma Iribas hidrokologia medikuaren arabera, «minero-medizinala da eta batez ere klo-

roa, sodioa eta burdina dauzka, azaleko arazoentzat hagitz egokiak; ur-litro bakoitzeko 333 miligramo gatz du urak, Europar eta kasik munduan gehien duena, eta hainbat oinaze mota sendatzeko egokia da, kloro eta sodio aldetik mineral aunitz baitu». Gaineratu zuenez, ura 14 gradu eta erditan ailegatzeko den urari behar izaten dute putzuetara isurtzeko. «Baita gatzak kendu ere, flotatzeko putzuan izan ezik».

KULTURA

Cultur programaren barne ekitaldiak

ttipi-ttapa

Cultur programaren edizio berria uztailaren 17an hasi zen eta abuztuaren 30ean akautuko da. Denbora horretan hainbat kultur ekitaldi egingo dira Nafarroako toki turistikoetan. Kontzertuak, ikuskizunak, erakusketak eta ardo dastatzeak antolatuta dituzte 27 herri eta interesneetan. Eskualdeari dagokionez, joan den uztailaren 17an, Marta Loredoren margo erakusketa zabaldu zen Bertizko jauregian eta abuztuaren 30a arte ikusgai egongo da. Ortziralean, uztailak 24, 19:30ean, Donamariako Jauregian Ganbara kontzertua aditzeko aukera izanen da Josetxo Goia Arriben eta Pello Ramirez, saxofoi eta biolontxelo joleen eskutik. Abuztuaren 1ean, artizautza feria eta herri kirol ikuskizuna izanen dira Elizondoko Merkatu Plazan. Abuztuaren 21ean, Donamariako Jauregian, Erdi Aroko doinuak XXI. mendean izeneko emanaldia eskainiko da 19:00etan. Abuztuaren 29an, Elizondon berriz ere feria izanen da eta kontzertua Mr. Dixie Jazz Band taldearen eskutik.

ttipi txartelarekin beti irabazten

deitu 948 635 458 eskatu zurea

40€rekin

Harpidetza, 40 dendetan deskontuak, hamabostero zozketak eta gainera, errenta aitormenean %25 itzultzen dizute

ARESO

Nafarroako Sorginen Ibilbideak herrian eginen du geldialdia

Informazio plaka paratuko da goiko ermitaren ondoan

Juana Mari SAIZAR

Badirudi, garai batean, Areson sorginak bizi zirela. Hori dela eta, Turismo Sailak bere asmo berrian parte hartzea proposatu dio Udalari.

Turismo Sailak Nafarroako Sorginen Ibilbidea berreskuratu nahi du eta hemen sorginak biltzen omen ziren lekua topatu da goiko ermitaren ondoan. Horrexegatik, hain zuzen, Turismo Sailak zulo horren ondoan plaka bat jarriko du historia azalduz eta sorginen ibilbidearen nondik norakoa aipatuz.

Bisita gidatuak udan

Plazaola Partzuego Turistikoak antolatuta, inguruko bertze herrietan bezala, Areson ere bisita gidatuak eginen dira. Herriko hainbat txoko ezagutzeko aukera eskainiko da, tartean, base-riak, kaleetako gal-

tzada-harriak, eliza, Matxain erreka errotta, Santa Kruz ermita, karobiak, ikuztegi oktogonala... Horiek denak ikusteko mendian barna ibili beharko da. Igandetan eginen dira ateraldi hauek, 11:00etan abiatuta eta 4 euro ordaindu be-

harko dira.

Joan nahi duenak aldeztu aurretik eman beharko du izena, 948 507204 telefonora deituz.

Mendiak erretzeko sistema berria

Mendiak erretzeko

lehen erabiltzen zen sistema debekatu egin denez, beste bide berri bat erabiltzen hasi dira udaletxean. Hala, makinekin sastraka eta lar guztiak txikitzen dituzte lur horretan ondoren belarra hazi dadin. Hala ere, hau ez da dena bat batean egi-

ten, urtean zati bat barru jartzen dute horrela eta hurrengo urtean, berriz, beste zati bat.

Dirulaguntza WiFirako

Cederna Garalur Elkartek Europako dirulaguntza lortu du Leader 4 kanpainaren barruan eta horri esker, Udalak %70ko dirulaguntza hartuko du Wi-Fi sistemaren instalazioarako. Telekomunikazio Departamentura bidali dute Wi-Fi sistema onartzeko tramitazioa eta hauek lizentzia ematean, mantentze-ordurako kuota bat ordaintzea eskatuko zaie erabiltzaileei.

Mezako ordutegi berria

Uda garaia iritsi denez, meza orduan aldatetako izango dira. Lehen 12:15ean izaten zen, eta ordutegi berriarekin 10:00etan izango da.



ARGAZKIA: ANA GOÑI

Ludoteka ere sanferminetan

Iruñean ez ezik, herrian ere entzierroan atera dira ludotekan parte hartzen ari diren neska-mutikoak. Egunero egiten zuten entzierroa herrian barna.

m
bentamiguel
denda, jatetxea eta ostalua

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdategia

Ibardingo Lepoa • 948 631 209

APARAN, S.A.
BIBULALIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

GOIZUETA

Amabirjinetako sinboloak berpiztu nahi ditu 50. urteurreneko komisioak

Protagonismo berezia izanen dute festetan Umore Onaren sortzaileek

Esteban AROTZENA

Hainbat peñakide be-
teranorekin batera, Uda-
leko eta Umore Ona El-
karteko ordezkariak
osatzen duten komisio-
ak prestatu du dagoe-
neko orain dela 50 urte
peña sortu zutenek aurtengo Amabirjinetan jasoko dituzten omenaldien zerrenda.

Jaiei hasiera emanen dien itxaferoa pizteko ardura aipatutako fundatzaileen taldearen esku egonen da. Dena den, Peñaren Egunean hartuko dute hauek protagonismoa haundiena. Goizeko diana orduko -1960. urteko- musikariek joko dute, eta eguerdiko ohiko Goizueta-Arano pilota partida aurretik opariak jasoko dituzte banan-ban. Ondoren ospatuko den Peñaren bazkarian ere, han izanen dira sortzaileak gonbidatu berezi gisa.

Urtebetetze borobil hau aitzakiatzat hartuz, Amabirjinei eta bere ohi-

turei buruzko deialdia ere luzatu die herritar guztiei hasieran aipatutako komisioak. Azken urte hauetan indarra galduz joan diren hainbat

ohitura berpiztu nahi ditu lantaldeak, egunero Peñaren blusa eta zapi jartzearena, batez ere. Peñaren bazkaria hartzen ari den norabi-

deaz ere -lasaiagoa izan beharko luke bazkide askoren ustez- hitz egin omen du luze eta zabal 50. urteurrenaren komisioak.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Plaza berritua 2012an

Herriko plazaren lurzorua erabat berritua geldituko da 2012an, 380.000 euroko aurrekontu duen obra gauzatzen denean, hain zuzen. 09-12 Hirurteko Planaren barrenean, Udalak Iruñari aurrekutzutako aurrekontu haundieneko lana da onartutako proiektu hau. Errekaundi pasealekuko, kale nagusiko eta plazako argiteria berritzeari -176.000 euro- ezezkua eman dio Nafarroako Gobernuak. Espidaldeko pistaren zolaberritze eskaera, berriz, -97.000 euro- erreserban utzi dute oraingoz.



PERTSONAIA

Aimar OLAIZOLA

San Fermin Torneoa txapeldun

Aimar Olaizola eta Irujo aurrez aurre izan ziren bertze behin uztailaren 7an, San Fermin Torneoko Lau T'erdiko Txapelketan. Iruñeko Labrit pilotalekua bete zegoela, erritmo biziko partida eskaini zuten goizuetarrak eta Iberokoak. Alde handirik gabe dirua Irujoren alde izan arren, azkenean Olaizola II.a nagusitu zen. Hasierako tantotetan berdinketa izan zen nagusi, eta biak ere ez ziren oso txukun ibili. Markagailuan seina zirela, Iberokoak egin zuen aurrera, eta bost tanto egin zituen segidan, 11-6koa ezarri. Baina Goizuetakoak gogor segitu zuen eta markagailua 15na jartzea lortu zuen. 18ko berdinketa etorri zen gero, eta handik aurrerako tantoak Olaizolak menperatu zituen. Aterio gogorrenetako bati irabazita, gustura gelditu zen Olaizola txapelarekin. Binakako torneoa ere finalera ailegatu zen Aimar, Zearra lagun zuela, baina ez zuen aurtengo Sanferminetako bigarrena janzterik lortu.

ttipi-Itapa

www.ttipi.net uterik parte hartzeak aukera eta balabide ugari ditu:

- » Artikulu baten gurean klikatzen, artikuluaren bukatzen auziare dago indurritakazari buruz iritzi eman ...
- » Herriari buru edukiak bidaltzeko: agendak argitaratzeko, urtebetetzeak, merkatu txikiak inguririk...
- » Denda lortzeko, urtebetetzeak, estakak, inguririk...

» berriak
» agenda
» urtebetetzeak
» merkatu txikiak
» dendak
» ...

» eguraldi
» baserria
» gastronomia

LEITZA

Plazaola Partzuergo Turistikoak antolatuta hiru bisita gidatu eginen dira udan

Peru-harri parkea, herrigunea eta Leitzalarrea eta Saralegiren Arro baserria ezagutzeko izanen dira

ttipi-ttapa

2009ko uda oihana-ren bihotzean izenburupean hainbat bisita gidatu antolatu ditu Plazaola Partzuergo Turistikoak uda honetarako. Ultzama, Basaburua, Larraun, Lekunberri, Areso eta Leitzan eginen diren 11 proposamen jaso dira, horietatik hiru herrian egiteko. Horietako bat Peru-harri Perurenatarren harriaren parkera joateko da. Eskaintza hone-tan, parkeaz gain, baserria bisitatu eta herri kirolen historia eta Iñaki eta Inaxioren markak ezagutzeko aukera eskainiko da. Bisita hauek larunbat eta igandetan eginen dira 11:00etan. Hel-duek 5 euro ordaindu behar dituzte eta 3 haurrek. Izena aurretik eman behar da (659 701045).

Herrigunea eta Leitzalarreko izei zuriak ezagutzeko aukera emanen du bigarren bisitak. Plazatik abiatuta, herrigunea, etxe tradizionalak, ikuztegia, eliza... ikusiko dira. Ondotik, norberaren ateoan Leitzalarrearaino

joan eta izei zuriak ikus-teko modua izanen da, monumentu natural izen-datua. Bisita hauek larunbatetan eginen dira, 17:00etan, 6 euro ordainduta. 948 507204ra deitu behar da aurretik.

Hirugarren eskaintza Kristina Saralegiren Arro baserri joateko da. Han-ago azizendak ikusi eta talogintza-tailerra eta horien dastaketa egitea pro-posatuko du. Asteazketan eginen da, 11:00etan, 10 euro ordainduta. 610 378543ra deitu behar da izen-emateko.

Herri kirolak

Jose txo Urrutia eta La-zaro Bujanek Nafarroako Herri Kirol txapelketetan parte hartu zuten aurt-eren Sanferminetan. Urrutia Orga Jokoa eta ingudearekin aritu zen, eta hirugarren postuak eskuratu zituen bietan. Bujan, berriz, ingudearekin laugarren izan zen.

Txingekin Migel Angel Sukuntza aritzekoa zen, baina min hartu zuenez, ez zen txapelketarik jo-katu.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ASIER IMAZ

Nafarroako Herri Artekoan azpitxapeldun

Leitzatik joandako autobusak, autoak, txistulariak, irratia... Baina ezin de-nean ezin da eta ezinaren aurrean bide bakarra dago: Aurrera. Herriarteko Pilota Txapelketako finala jokatu zuten Aurrerakoek Iruñeko Oberena tal-dearen kontra uztailearen 5ean, baina ez zuten txapelik lortu. Lehen partida alebinek jokatu zuten. Lezearen ausardiak ez zuen garaipen gisa saririk edu-ki, baina 15 tanto garrantzitsu egin zituzten leitzarrek. Jon Lezea eta Ander Eskuderok 15-18 galdu zuten Iruñeko bikotearen kontra. Infantilen partidaren berotasunak eta sufrimenduak izerdi putzuak sortu zituen armailetan. Mar-kagailuan 12-5 egon ziren atzetik, baina azkenean Anartz Olano eta Mikel Hernandorenak 18-15 irabazi zieten Oberenakoei. Jubeniletan Jaunarena anaiak aritu ziren eta erraz hasi baldin baziren ere, atzean jokatu zuen lei-tzarraren nekeak Iruñarrei bizia eman zien. Amaieran 22-12ko emaitza lortu zuten. Azken partidaren atarian, gauzak argi zeuden: 13 tanto egiten badi-tu Leitzak txapela berea du. Baina Asier Gartzia-aren osasun arazoek eta Iru-ñeko bikotearen sendotasunak txapela Labriten utzi zuten. Asier Gartzia eta Mikel Iriartek ezin izan zuten garaipenik lortu eta, amaieran, nahiz eta bi he-rriek bina partida irabazi, 8 tantoko aldeaz Iruña nagusitu zen.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ASIER IMAZ

Udako tailerretan sukaldean

Udako tailerren barne sukaldean sartu zituzten 6-12 urte bitarteko haurrak uz-tailaren 6tik 10era. Usaimena, zaporea, ikusmena, ukimena eta esperimenta-zioa landu zituzten sukaldearen inguruan. Saharatik etorritako hainbat hau-rrek ere parte hartu zuten. Hilaren 13tik 17ra, berriz, *Hi haiz artista!* tailer-rean ibiltzekoak ziren, eta aste honetan *Makinekin jostatu* ikastaroan ari dira. Abuz-tuaren 7an amaiutko da aurtengo ekimena.

ttipi
ttapa

www.ttipi.net

info@ttipi.net

☎ (0034) 948635458

BAZTAN

Elizondoko Foru Plazaren lehiaketako irabazlea abuztuan jakinaraziko da

Horrela baieztatu du alkateak

ttipi-ttapa

Udalak abuztu hasieran jakinaraziko du Elizondoko Foru Plaza beritzeko lehiaketara aurkeztutako proiektuen artean, epaimahaiak zein aukeratu duen. Horrela baieztatu digu Virginia Aleman alkateak.

Ideien lehiaketara 44 proiektu aurkeztu ziren eta maiatzean jendarean ikusgai paratu zirenean, *Billantzikotik Zortzikora* izenekoak izan zen herritarren boto gehien jaso zituena, 83 guztira. Bigarren aukeratua *Laxoa 1* izan zen -78 boto- eta hirugarrena *Bat Han* -58 boto-. Iragarri bezala, herritarren iritzirik %20ko balioa izanen du azken erabakia hartzerakoan, eta gainerakoa horretarako bereziki eratuak epai-mahaiaren esku geldituko da. Irabazleak 6.000 euro jasoko ditu, bigarrenak 3.000 euro eta hirugarrenak 2.000 euro.

Obra berriak

Jakina denez, Udalak Elizondoko alde zaharra itxuraldatu nahi du, eder-

tu. Horren barne, hainbat obra egin dira: Jaime Urrutia karrika zola-berritu, Merkatu Plazan obrak... Nafarroako Kutzaren ondoko lorategian ere lanean hasi dira. Lorategi horretan, orain arte Jaime Urrutiako auzotarrentzat ziren zaboreen edukiontzia lurraspian paratuko dira.

Gorka Urtasun erremonte profesionalen

San Fermin bezperetan, Euskal Jaiko harrailak xuriz eta gorritz betetzeaz aparte, eskualdeko jendez bete ziren, Gorka Urtasun iruritarra eta Endika Urrutia saldistarraren erremonte profesionalerako debuta ikusteko.

Biek ezin izan zuten garaipena lortu euren lehendabiziko partidaren, elkarren kontra aritu baitziren, eta Endikak Jonekin 30-27 irabazi zuen Urtasun-Agirrezabalaren kontra, giro ikaragarriaz inguratutik.

Lehenengo partiduan maila ona erakutsi zuten biek, nahiz eta nerbioek



ARGAZKIAK: MAIXABEL

Giro ederrean Erratzuko Sanpedro bestak
Gazte zein heldu, denek ere ederki pasatu zuten Erratzuko Sanpedro bestetan.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Haur parke berria Baztanberrin
Elizondoko Baztanberrin nagusiki jende gazte eta haurrez osaturiko auzoa da. Sorreratik Udalarik haur parkea egiteko eskaera egin zuten, eta berriki inauguratzeko aukera izan dute.

ere parte hartu zuten. Urrats garrantzitsua eman dute erremonte

munduan sartu. Orain, hemendik aitzinean lan txukuna eta zintzoa egi-

nez, ea eskaileraren goitiraino ailegatzen diren. Zorte on!



igogailuen instalazioa
Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
suteia@suteia.com



Gremio guztiak koordinatuz eta proiektuaren ardura hartuz, zure igogailu instalatzen dizugu

BAZTAN

Zigako Sanlorentzoak abuztuaren 8tik 11ra

Astelehenean Pantxoak eta Peio kantaldia eskainiko dute

Larubeta 8

8:00etan txupinazoa eta Xeonen apustuaren hasmenta. **12:00etan** apustuaren bukaera herriko plazan. **14:30ean** herri bazkaria akordeoi-lariak alaituta. **19:30etik 21:00etara** dantzaldia KLAI taldearekin. **21:30ean** Baztan-Zopak frontoian. **00:30etik 5:00etara** gaupasa.

Igandea 9

Haur eta Gazte Eguna

8:00etan txaranga herrian barna bueltaka. **11:00etan** mus txapelketa. **11:00etan** gazte- en gosaria. **12:00etan**

gazteak etxez etxe. **13:00etan** haurren bazkaria. **16:00etatik 20:00etara** haur jokoak eta txokolatada. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia AGERRALDERekin. **22:30ean** afaria ostatuan. **00:30etik 5:00etara** dantzaldia AGERRALDERekin.

Astelehena 10

San Lorentzo Eguna

8:00etan txaranga herrian barna bueltaka. **11:00etan** Meza Nagusia. **12:00etan** luntxa. **12:30ean** herriko aizkora desafioa. **20:00etatik 22:00etara** kantaldia Pantxoak eta Peioren es-



kutik. **22:30ean** andre afaria. **00:30etik 5:00etara** dantzaldia AGERRALDERekin.

Asteartea 11

Zikiro Eguna

11:00etan pilota txapelketa. **14:00etan** zikiro jatea Berako Izadi txarangak alaituta. **19:30etik 00:00etara** dantzaldia. **00:00etan** GAIXOAK GU.



ARGAZKIAK: ARANTXA GAMIO

Aurten ere ez da umorerik faltako Sanlorentzo bestetan. Dena den, ekitaldi guzien artean aipagarriena Pantxoak eta Peio kantari ezagunen bisita izanen da. San Lorentzo Egunean, astelehena- rekin, euren emanaldia eskainiko dute 20:00etatik 22:00etara.

ETXEZURIA
Londra etxeo - Janaridonda
my parte bestak
AV NANTA Kalitateko produktu benetazkoak
alaitu zerbaitzuekiko
Zare herriko denda, zare etxetik harbil agoneko irakia
Telefonoa: 948 452 078
Tolpatain herriko - ZIGA

OSTATUZARRA
ostatu-jatetxea
Baztan zopak
Eguneko menua 12€
Erreserbak 948 581 108 ZIGA
www.ostaturarra.com

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

DENA %50eko
deskontuarekin
Alai oinetakoak
Santiago, 47 - Elizondo - tel. 948 452 457

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO
Tel: 948 581 807 - 948 581 853

BAZTAN

Zahar-etxeak publikoa izaten segitzen duela berretsi du alkateak

Kudeaketa IDEA enpresaren esku dago uztailaren 1az geroztik

ttipi-ttapa

Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte zahar-etxearen kudeaketa esku pribatuetara pasatu izanak, eztabaida eragin du. Langileen Bartzordea erabakiaren kontra agertu da hasieratik, «Baztango eraikin historiko bat irabaziei begiratzen dien enpresa baten esku ezin dela utzi» erranez, eta protestan segitzeko asmoa ere adierazia dute.

Baina Virginia Aleman alkatearen hitzetan, gai honen inguruan gaizki ulertuak egon dira. Argi utzi nahi izan du gestioa dela esku pribatuetara pasatu dena, eta «instalazioek publikoak izaten segitzen dutela». Horrekin batera, zera adierazi du Alemanek: «Udala eta zahar-etxeak juntak eskaerak kontrolatzen segituko dute, baztandarrei beti lehentasuna emanen diete eta eurek aplikatuko dituzte kuota eta beharrezkoak diren inbertsioak ere eurek onartuta aterako dira aitzinera».

Alkatearen arabera, aldaketaren gibelean, «aholkularitza teknikoaren beharra» dago, «zentroak zuzendaritza espezializatua izan dezan, zerbitzua behar bezala garatzeko». Alde horretatik, alkatearen irudiko, gestioa hartu duen IDEA Innovacion y Desarrollo Asistencial enpresa pribatuak «prestakuntza eta esperientzia egokia ekarriko dizkio zahar-etxeari».

Gaur egun, 136 egoiliar eta 62 langile ditu Francisco Joaquín Iriarten zahar-etxeak.

Arma eta gida baimenen zentroa itxita

Arma eta gidabaimenen mediku azterketak egiteko Elizondon dagoen zentroa itxita egonen da uztailaren 22an eta 29an —asteazkenak—. Abuztuaren 1etik aitzinera, beti bezala, asteazkenero 8:00etatik 13:45era Elizondoko Osasun Etxean egonen da zabalik.



ARGAZKIAK: VIRGINIA OTEIZA

Jostaldiak Oronoz-Mugairin, Elizondon eta Erratzun Uda ailegatzekin batera, Baztango Euskara Zerbitzuak, berriz ere, haurrei zuzendutako jostaldiak martxan paratu ditu. Hasiera batean, Elizondon (bi tailer), Iruritan, Erratzun eta Oronoz-Mugairin egitekoak ziren, baina izen-emandako haur kopuru eskasagatik aldaketa batzuk egin dira. Iruritan egin beharrean, Ziga eskaini zen, baina azkenean ez batean ez bertzean ez da jostaldirik izanen, guttieneko haur kopurua ez lortzeagatik. Hala, lehenbiziko txanda Oronoz-Mugairin (8 haur) eta Elizondon izan da; bigarrena Erratzun (30 haur) eta azkenik, Elizondon (44 haur). Tailer desberdinak egiten dira Virginia Oteiza, Irune Jaen, Mirentxu Mendikoa, Joseba Aleman, Lurdes Elizegi, Itxaso Otondo, Estebe Apezetxe, Fanny Bonnemaison eta Irati Larrizibarren esku-tik: eskulanak, Baztango ipuinak, naturarekin zerikusia duten ekintzak...



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Lekarozko presa botatzen hasi dira

Bere garaian Kaputxinoen ikastetxea argindarrak hornitu zuen Lekarozko presa botatzen hasi ziren uztailaren 14an, asteartean. Nafarroako erreken egoera ekologikoa hobetzeko, Kantauriko Ur Konfederazioak egin gogo dituen lanetako bat da Lekarozko presa botatzearena eta 125.000 euroko aurrekontua du, ondoko eraikina ere botako baita. Presa botata, arrainendako oztopo bat kendu eta uholde arriskua murriztuko da batzuentzat. Bertze zenbaitentzat, aldiz, ondarea galdu egiten da honelako lanekin. Abudo, Elbete, Kixua, Ika-tzetea eta Landaberriako presak ere botako dira.

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo - braulio iriarte 33, 1ºD - 31700
948250371 iñuñea - irabeko monastegia 62, 4ºC - 31011

POTTOKI
Bartzanberr Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnoa: 948 501 963
info@pottoki.com
www.pottoki.com
Astelehenean
Irunbatera:
8:30 - 13:30
18:30 - 20:00

ZUGARRAMURDI

Irailaren 15a bitarte bisita gidatuak egingen dira herrian eta leizean

Ortziraletan leizera bisita antzeztua eta larunbat eta igandetan herriko karrketan ibilbideak

Margari eta Koro

Uztailaren 15az geroztik, bisita gidatuak egingen ari dira herrian, eta irailaren 15era arte horretarako aukera izanen da. Aurten lehenbiziko aldiz proposatu den ekimena da eta udarik gabe, aukera paregabea, herria eta herriko kontuak ezagutzeko.

Alde batetik, *Historiaz beteriko etxeak* izenburupean, karrketan barna bisitak egingen ari dira, larunbat eta igandetan, 12:00etan eta 17:00etan plazatik abiatuta. Ibilbideak ordubete irauten du eta bisita hasi baino 15 minutu lehenago Sorginen Museoan egoten dira txartelak eskuragarri. Helduentzako prezioa 2 eurokoa da eta haurrena euro batekoa.

Horrez gain, *Ilargi-beta sorginen larrea* izeneko bisita antzeztuak ere eskaintzen ari dira sorginen leizean. Hauek ortziraletan egingen dira,

20:00etan museotik abiatuta. Bisita hauen iraupena ordu bat eta 15 minutukoa da eta prezioa, berriz, helduen kasuan, 8 eurokoa eta haurretan 4 eurokoa. Ai-

tzinetik erreserbatzea nahitaezkoa da, eta horretarako helbide honetara idatzi behar da: info@zugarramurdi.es edo bertzela, deitu telefono honetara: 948 599004.

Museoan eta leizean ordutegi berria

Aurten ere, uda saioan ordutegi berria izanen dute Sorginen Museoak eta leizeak.

Uztailaren 15az geroztik, leizea egunero irekia dago, 10:30etik 20:00etara eta museoan, berriz, astelehenean eta astearte goizetan itxita egon arren, gainerako egunetan irekia dago. Astearte arratsaldetan 16:00etatik 19:30era eta asteazkenetik igandera 11:00etatik 19:30era zabalik dago. Ordutegi berri hauek irailaren 15era bitarte iraunen dute.

PREZIOA

Prezioei dagokienean, leizean sartzeko helduek 3,5 euro ordaindu behar dituzte eta haurrek 2 euro. Museoan, ordea, helduen sarrera 4 euro kostatzen da eta haurrena 2 euro.

Aipatzekoa da, museo sarrerarekin beharpena dagoela leizean sartzeko eta alderantziz ere bai, leizekoarekin museoan sartzeko.



ARGAZKIAK: FANNY BONNEMAISON

Akitu dira udalekuak

Ekainaren 29az geroztik, udalekuetan ibili ondotik, uztailaren 17an bukatu ziren. Asteleheneetik uzdiralera goizetan bi orduz guztira Urdazubi eta Zugarramurdiko 26 haurrek parte hartu dute, denetariko jarduerak eginez. Argazkian ageri denez, gustura ibili dira eta ez dute asperetzeko astirik izan.

COLCHONES ATSEDEN
KOLTZOI FABRIKA



Zure ametsen fabrika

OPORRAK PLANA

Zure ametsetako bidaiari errealitate bihurtzeko **COLCHONES ATSEDENEK** hotel batean 7 gau oparitzen dizkizu 800€ edo gehiagoko erosketa egiteagatik, edo nahiago baduzu zure erosketa 12 hilabete arte interesik gabe finantzatzeko aukera ematen dizu.

www.colchonesatseden.com
Aprobetxatu promozioa

Eta hiru guztia gure botiko prezioetan, lantegiko prezioetan

Ez ulzi zure oporrei ihes egiten!

Irüña-Huesca errep. • 948 346 000 • TORRES DE ELORZ • Billaonandea kalea • 948 346 000 • BURRATA • Inulana, 11 • 948 346 066 MENDEBALDEA

URDAZUBI

Burdinaren Eguna antolatu du Bertizko Partzuergo Turistikoak abuztuaren 1erako

Antzerkia, artisau azoka, hitzaldia, zikiro jatea... denetarik izanen da

ttipi-ttapa

XVI. eta XIX. mendeen artean burdina lantzen zen herrian. Eta horren lekuko dira etxe aunitzen izenak: Masakoleta, Olakobizkarra, Olaburukolanda, Landibarreko Ola... Hain zuzen horregatik, eginen da Burdinaren Eguna Urdazubin, Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatuta. Burdinak herriarekin izandako loturagatik joan den urtean egin zen lehenbiziko aldiz Burdinaren Eguna eta aurten bigarrena, abuztuaren 1ean eginen da, larunbatarekin.

Haur zein helduentzako ekitaldiak izanen dira, goizean hasita.

10:30ean haurrentzako antzerkia izanen da, plazan. *El pirata garramantasikuskizuna* eskainiko dute. Ordu berean hasita, 14:00etara bitarte artisau azoka izanen da. 12:00etan burdina monasteriora ailegatuko da, zubitik plazaraino bidea egin on-



ARGAZKIAK: BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOAK

Joan den urteko edizioak ikusmin handia eragin zuen jendearen artean.

dotik. 13:00etan hitzaldia eskainiko du Xabier Alberdik monasterioan, *Urdazubi itsasorako bi-deetan* izenburupean. Egunari segida emateko, zikiro jatea eginen da plazan.

Pilotaren Unibertsoa

Iragarri bezala, ortziral honetan hasita, uztaileak 24, Pilotaren Unibertsoa jaialdia eginen

da, Bertizko Partzuergo Turistikoaren ekimenez. Aurten ere pilotari buruzko hainbat ekimen ikusteko aukera izanen da hiru egunez: ortziral honetan eta abuztuaren 8an eta 22an.

Paxaka, pala eta zesta-punta aukeratu dituzte aldi honetan eta 19:30ean hasita, modalidade bakoitzeko partida motzak jokatu dira. Partiden ondotik, musi-

ka doinuak eta dastaketak izanen dira, egunaren arabera desberdinak. Hala, ortziral honetan, parrillada izanen da; abuztuaren 8an patata tortilla lehiaketa eginen da eta 22an paella jatea.

Zeharbideko lanak geldituak

Uztail akaberan eta abuztu osoan Dantxarri-neako zeharbideko lanak alde batera utziko di-

ra. Bi arrazoigatik hartu da obrak gelditzeko erabakia: uda garaian turista aunitz ibiltzen delako eta ez delako eroso. Eta bertetik, lanekin segitu ahalizateko, Telefonicak probisionalki linea battoz aldatu behar duela. Udako geldialdia horretarako ere aprobeztatuko da.

Leizeetako ordutegi berria

Ohi bezala, uztailean eta abuztuaren ordutegi berria izanen dute Ikaburuko leizeek. Gainerako sasoiaren 18:00etara bitarte egoten dira zabalik, baina udan, 10:00etatik 19:00etara arte atek irekita edukiko ditu. Iraillean, ordea, berriz 18:00etan itxiko da.

Prezioei dagokienean, urteko prezioak mantenduko dira: helduensarrera 4,5 euro kostako da eta haurren 2,5 euro. Taldean etorri zergo-20 lagunetik goiti-, helduen sarrera 3 eurokoa izanen da eta haurren 2koa.

Carlos Garaikoetxea Etxenike abokatua

Telefonoa: 948 581 468
Mug: 630 354 816

Santiago, 59 2C ELIZONDO

Iñaki Alzulet margoak

Perlas pinturables eta instalatibak • Dibujos de paredes, techos, muebles
Fotografías • Serigrafías
Llaves de bombas de agua • Placas
Herramientas para mantenimiento de pintura
Tel: 609 802 417 • Bar-Elpi etxea - Landibar Azoka • 31711 URDAZUBI
ginurua.alzulet@yahoo.es

ARMUA JATEKIA

T. 948 593 131
Zuzendaritza osoa: 3km URDAZUBI

MENDIALDE JATEKIA

T. 948 453 063
N. 123-076-400
L. AMAIUR

MONTXO OSTATUA

Dantxarrietatik 2 km-tara

ТАВЛКО-ДЕНДЛ
АНЗАН-БОРДЛ • УРДАЗУБИ

Egutegia irekia 10:30etik 02:30era

SENPERE

2012 edo 2013an baizik ez da prest izanen karrika nagusiko saihesbidea

Saihesbidez gain, bi zubi eta bi itzulbide ere egingen dira

Franck DOLOSOR

Uda guziz, eta funtsean urte osoan, auto metatze haundiak sortzen dira karrika nagusian. Horri buru egiteko, saihesbide bat egingen du Pirineo Atlantikoetako departamenduko Kontseilu Nagusiak.

Dena den, **Ttipi-Ttapa** jakin du lan hori uste baino berantago bururatuko dela. Bide berria hiru edo lau urteren buruan baizik ez da prest izanen. Horrek erran nahi du metatze ederrak ikusiko ditugula oraino gelditu gabe haunditzen ari den herrian. Traba ainitz, beraz, ibiltzeko, eta zombait ospakizunen kariatarat, konparazione herriko bestetan. Saihesbidea izanen delarik, karrika nagusia hesten ahalko da baina urte batzutan oraino ehunka auto eta kamiun jasan beharko dira.

LANAK ZATIKA

Saihesbidearen lanak laster hasiko dira Philippe Mazaud Kontseilu Nagusiko lanen arduradunak **Ttipi-Ttapa**ri erran dionaz. Dena den, uste baino lu-

zeagoak izanen dira zatika egingen baitira. Departamenduak obra bat baino gehiago egin behar omen du denbora berean eta nahi baino dirutza tikiagoa dauka. Saihesbidearen bidez gain, bi zubi eta bi itzulbide egin beharko dira Olhako Ama Birjinaren itzulbidea eta Ibarungo bidea lotzeko Urgurin barna. Jandarmeriaren ondoan izanen diren itzulbidea eta zubirat gateko bi-

dea altxatzeko deialdi publikoa egin du jadanik Kontseilu Nagusiak. Uda hondarrean, bigarren deialdi publikoa zabalduko du lehen zubi eraikitzeko.

20 JABEREN LURRAK

Saihesbidea egiteko, Kontseilu Nagusiak lurak hartuko dizkie hongoi bat jaberri. Untsalaz ez dituzte kanpo emanen, den-dena akortean egitea nahiago baitute eta iduriz momen-

tuz negoziazioak ongi iragaiten ari dira, beti ere Kontseilu Nagusiko lanen arduradunaren erranetan.

Itzulbide berri bat Dantxarinea aldean

Dantxarinean gertatzen diren auto metatzeak saihesteko N121B bidea berritzea deliberatu zuen duela zombait hilabete Urdanubiko Herriko Etxeak. Orotarat, 2,7 miliun eu-

ro baliatu dira saihesbide berria egiteko. Saihesbide berriaren azken borobila Senperere eremuan kokatzen da. Aipagarria da, Nafarroak ordaindu duela Lapurdin dagoen azpiegitura berri hori. Paueko Kontseilu Nagusiak 150 000 euro baizik ez ditu ordaindu Senperekoan den itzulbidea egiteko, gainerako guzia nafarrek pagatu dute. Ez omen da lehenbiziko aldia horrelako zerbait gertatzen dela muga inguruko bideetan.

Udan, herriko historia ezagutu

Karrika nagusiko saltokietan dabilenak margo berriak ikusten ahal ditu. Hamabortz margo hauek herriko historia ezagutzeko parada eskaintzen dute. Hauen bidez ikas daiteke duela lauhun urte Senperen gertatu zena: De Lancren auziak ustezko sorginen kontra. Sorginen auziaren 400. urtemugaren kariatarat paratu dira margo horiek eta uda osoan preziatzen ahalko dira.



PELLO FAGOAGAK UTZITAKO ARGAZKIA

Gaztelua egoera txarrean

Lurrerat erortzekotan den Senpereko gazteluak itxura hau erakusten zuen duela zombait urte. Euskal Herriko historiaren lekuko zintzo hunek ze etorkizun izanen du? Ongi merezia izanen luke osoki berritua izatea...



SOULE

hileta artea

Tfnoa. 948 453 444

Mug.: 629 659 583

ARIZKUN



THE BIRDING
LITTING
IDENTIGIT
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542519
Maison eto Yénotropia

SARA

SARA

Abuztuaren 23an jokatu da 47. aldikoz Kontrabandisten Lasterketa

Egun berean, hemengo produktuen eta eskulanen merkatua izanen da plazan

Xan HARRIAGUE

Abuztuaren 23an izanen da abuztuko ekitaldi nagusia. Berrogeita zazpigarrena izanen da aurtengo Kontrabandisten Lasterketa.

Iaz Fernando Etxegarrai beratarrak irabazi zuen, eta aurten ere faborito nagusien artean da. Irabaziz gero, Ramuntxo Lamote bezala bost garaipen izanen lituzke plazatik Zazpi Fagoetara joan-etorria egiten duen lasterketan.

Lasterketaren beha egoten den bitartean, zeregiteko gauza anitz izanen da herriko plazan, usaian bezala, Turismo Bulegoak hemengo produktuen eta eskulanen merkatua antolatu baitu.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Kontrabandisten Lasterketako merkatua.

KIROLARI LOTUTAKO EKITALDIAK

Horrez gain, zernahi ekitaldi eginen dira heldu den hilabete honetan. Beste dagokionez, abuztuaren 1ean errugbiarena izanen da eta

22an, berriz, pilotarena. Goizetik hasiz bi elkarteez hainbat erakustaldi prestatu dituzte, pilota partidak eta dantzak tartean. Bietan han berean bazkaltzeko eta afaltzeko

aukera izanen da, baita zintzurra bustitzeko ere.

KANTALDIK ORTZIRALERO

Ekitaldi kulturalak ere ez dira faltako. Eus-

kal kantuek tarte zabala izanen dute, ortziraldia guziz kantaldi bat izanen baita elizan. Lehen korala Goraki izanen da eta ondoko ortziraletan Donibaneko Arin, Larrun Kanta eta Saiberri ariko dira, hurrenez hurren. Abuztuaren 6an, berriz, Gernika abesbatzak kantatuko du, honek ere elizan. Ekitaldi horiez gain, beste hainbat erakustaldi eskainiko dira hilabetearen, pilota, dantza eta herri kirolak, besteak beste.

Joko garbi

Izarra taldeko joko garbiko minimeok Euskal Herriko liga irabazi dute. Saran berean jokatu zen finalean 45 eta 44 nagusitu ziren Saint Pierroten kontra.

edredoj fundak
albomozak
edredoj nordikoak
oñe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik lentzeria-etxea
Casa Cambra

udako merkealdia

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634



EZKONTZAK

Francisco Jabier Eseberri Mantxo eta **M^a Asuncion Perurena Iribarren**, Otsagi eta Goizuetakoa, ekainaren 25ean Goizuetan.

Aitor Aranberri Uranga eta **Maitane Apezetxea Lujanbio**, Leitzakoa eta Goizuetakoa, uztailaren 4an Goizuetan.

Mikel Telletxea Santesteban eta **Miren Itziar Rekarte Belarra**, Zubietakoa eta Doneztebekoa, uztailaren 11n Zubietan.

Jose Maria Marcelo del Saz-Orozko Fernandez eta **Hiroe Kiuchi**, Irungoa eta Chiba (Japonia), ekainaren 27an, Etxalarren.

Mikel Deskarga Bazterrika eta **Leticia Ariztoi Etxepeteleku**, Eratsungoa eta Iturengoa, uztailaren 4an Iturenen.

Asier Jorajuria Bazterrika eta **Mirian Mindegia Grazenea**, Donamariakoak, uztailaren 11n Donamarian.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



SORTZEAK

Beñat Iriberrri Casquedo, Arantzakoa, uztailaren 1ean.

Julen Elizaintzin Alzuarde, Iruritakoa, maiatzaren 11n.

Kaiet Otheguy Rementegi, Urdazubikoa, ekainaren 27an.

Ane Barrikart Zia, Oizkoa, ekainaren 28an.

Oier Tapia Iturria, Lesakakoa, ekainaren 29an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



HERIOTZAK

Juan Carlos Gonzalez Eskudero, Lesakakoa, uztailaren 9an.

Jose Manuel Telletxea Urdanibia, Doneztebekoa, uztailaren 10ean, 84 urte.

Jose Francisco Larramendi Irigoien, Iruritakoa, uztailaren 3an, 89 urte.

Loli del Puerto Egaña, Berakoa, uztailaren 3an, 84 urte.

Serapio Altzuri Ezkurra, Sunbillakoa, uztailaren 4an, 90 urte.

Juan Jose Galbar Leache, Elizondokoa, uztailaren 4an, 89 urte.

Isabel Irigoien Aleman, Zigakoa, uztailaren 5ean, 84 urte.

Joakin Eskudero Leonet, Eratsungoa, uztailaren 7an, 85 urte.

Angel Iraola Bertiz, Berakoa, uztailaren 7an, 76 urte.



Karmenxu GOÑI ELIZONDO

Arantzán, ekainaren 28an, 68 urte zituela

*Egun gogor hauetan
gure ondoan izan zareten
eta gure saminarekin
bat egin duzuen guzietan,
mila esker.*

ZURE FAMILIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

LASTERKETA

Manttale Ttiki taldeak lehen ikasturtea indartsu eta gogoz bukatu du

Inguru honetako atletismo eskola bakarrean 32 neska-mutiko aritu dira

Aitor AROTZENA


Manttale Ttiki Atletismo eskolak bere lehen ikasturtea bukatu du Beran. Inguru honetan neska-mutikoei lasterka egiten erakusten dien eskola bakarra da Manttale Mendi Lasterketa Taldeak bultzatutakoa. Kirol magisteritza ikasten duen Jone Zelaieta beratarra hasi zen monitorea baina laguntzaile izan ditu Iñaki Pikabea, Cristina Arbues, Patxi Irazoki eta bertze zenbait korrikalari ere. Izan ere, Iñaki Pikabeak aipatu digunez, «ez genuen halako arrakastarik espero, 30 hurretik goiti etortzen ziren larunbatero eta adinaren arabera bi taldetan banatu genituen eta gu laguntzeko hor izan gara. Lau lagunekin ongi moldatu gara, bi lagun ttikien taldearekin, 7-10 urte artekoekin eta bi handien taldearekin, 11-14 urtekoekin». Dena den, adinean mugarik ez dutela paratzen ere erran digu Pikabeak. Gehienak Berakoak badira ere, Igantzi, Arantza eta Lesakatik ere etortzen dira korrikalari batzuk.

Larunbat goizetan bildu dira, denak libre xamar zuten egun bakarraz zelako. Izan ere,

Manttale Atletismo eskolan ari diren neska-mutiko gehienak saskibaloian, futboleak, pilotan edo bertze kirolen batean aritzen dira eta ingelesa edo musika ere ikasten dute. Manttale eskolaren lehen helburua «*hurrei lasterka egiten erakustea izan da, aktibitate eta ariketa ezberdinekin teknika erakutsi... honela gustura etorri dira, kontua ez baitzen matxakatzea eta izugarritzko ahalegina egitea*».

Mendialde osoan dagoen atletismo eskola bakarra izanik, ardura berezia ere bada, baina alde horretatik lasai dago Pikabea: «*Patxi Irazokik eta nik gure esperientzia jartzen dugu, guk arituz eta ibiliz ikasi baitugu dakigun pizarra, baina Jonek eta Cristinak hori ikasia dute eta umeekin esperientzia dute, horrek lantzen ematen du. Gauza teorikoa beraiek erakusten diete eta guk alde praktikoa lantzen dugu eta gainera, lasterketetan ikusten gaituzte eta nolabaiteko ispilua ere badute gurekin, horrek ere balio du*».

Gustura somatzen zaio Iñakiri esperientziarekin, «*izugarri polita izan da, hagitx abe-*



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Manttale Ttiki eskolakoak, entrenatzen eta zenbait lasterketetan.

rasgarria da». Eskolara joaten diren umeen artean, badira batzuk konpetitza gogoko dutenak eta bertze batzuk kirol pixka bat egiteagatik joaten direnak. «*Maila ezberdinak daude: badira lasterka hagitx ongi egiten duten haurrak, eta horiei pixka bat gehiago eman behar diezu, lasterke-*

tetara joatea gustatzen zaie. Bertze batzuk ongi pasatzera etortzen dira, badira deus egiten ez duten haurrak ere eta hauentzat deskubrimendu handia izan da, zerbait egiteko modu erraza eta ximplea baita. Bertze kirolak egiteko zailtasunak dituztenak etortzen dira eta jokuak egiten dituzte, la-

gunartean ongi pasatzen dute...».

Azken finean, kirola egitea osasungarria dela erakutsi nahi dute Manttale Ttiki eskolan, «*lasterka egiten eta kirol egiten erakutsi, nola egin behar den barneratu eta gero, denborarekin, norberakezarriko du zein mailatan ari nahi duen*».



Ainhoa eta Ixabel ANSA Aranoko segalariak

ttipi-ttapa

Azti, prest, motz! Hartu sega eta belarra moztera! Horrela ibiltzen dira Ixabel eta Ainhoa Ansa izeba-ilobak. Eskualdean hagitz hedatua ez dagoen kirola da, baina Ansatarrek gustukoa dute. 12-13 urterekin hasi ziren segan, eta gaur egun Euskal Herrian eta Europan txapelketaz txapelketa eta erakustaldiz erakustaldi ibiltzen dira Almitza Sega Elkartearekin. «Ni aitarekin hasi nintzen –Ainhoaren aitona– ontzeko eta gaudarentzat janariak egiteko belarra moztan. Astoa eta karroarekin han ibiltzen nintzen!». Horrela oroitzen ditu Ixabelek hasierako urteak. Ainhoak ere aita –Ixabelen anaia– izan zuen erakusle: «aitaren atzetik ibiltzen nintzen, baina nire kasuan ez nuen sail haundiegirik moztan! Eguneko janariak egin, eta karretila ttiki batean bilduta etxera!».

Txapelketarako pausoa berandua go eman zuten, Almitza Elkartearen bidez. Ahizpa eta lehengusu baten bitartez ezagutu zuen Ainhoak elkarteak. «Europako Alpeetan-edo Txapelketa bat zutela eta txalapartari moduan joan ziren ahizpa eta lehengusua haie-

kin, eta itzultitakoan, iratze moztera gonbidatu genituen. Gustura etorri ziren, baina emakume segalariak behar zizutela esanez joan ziren. Desafio moduan bota ziguten ea parte hartzera ausartuko ote ginen Europako hurrengo urteko taldekako txapelketan. Eta han joan ginen lauko taldea: ama, amaren ahizpa bat –izeba Mila–, ahizpa gazteena –Maider– eta lauak». Probatu eta gustatu. Ixabel, berriz, Ainhoak animatuta hasi zen.

Izeba-ilobak izanik, bien arteko lehiarik ote dagoen ere galdetu diegu: «Ez, ez, batere ez. Elkarren arrimuan ederki ateratzen gara», dio Ainhoak. Ixabel ere pozik: «polita da izeba-ilobak horrela ateratzea». Geroztik hamaika belar ebakiko zuten, nahiz eta Ixabelen hitzetan, «nahi eta behar baino gutxiago entrenatu». Segan aritzeko baldin-

«Sega bera, kirolek kanpo gaitzen ari da. Gero eta segalari gutxiago dago ofizioz baserrian ikasi duena»

«Emakume eta mutil gazteak animatuko genituzke kirol honetara hurbiltzeko»

• Musikari, kantari, berriemaile... Eta segalari ere bai. Ez dira segan aritzeagatik bakarrik ezagunak Aranoko Ansatarrek, baina horretan ere ederki moldatzen dira.

• Sega munduan dabiltzan emakumezkoak gutti diren arren, elkar animatuz, kirol bezala, sega aukeratu dute Ixabel eta Ainhoa izeba-ilobek.

• Azken aldian Euskal Herriko Nazioarteko Erako II. Sega Ligan ibili dira, eta egindakoarekin «gustura» gelditu dira. Gainera, Ainhoak Alemanian abuztuaren 23ko asteburuan egingen den Europako Banakako Txapelketarako txartela eskuratu du. Eta aurretik, abuztuaren 1 eta 2ko asteburuan taldekakoan ariko da.

tza egokienen berri ere eman digu izebak: «goizeko ihintzetan mozteak onena, aitona zenak zioen bezala! Zenbat eta goizago altxatu, eguerdirako lanak bukatuta izateko errazago! Belar samurrean askoz arinago aritzen da, uztarik eta belar txarrik tartean ez badu hobe, eta zorua ere erein gabekoa bada hobe... sator pilarik ez egotea ere komeni da sega gutxiago kamusteko...». Eta sega nolakoa ote? «orain arte euskal sega erabili izan dugu», dio Ainhoak. «Baina kanpoko segekin saiakerak egiten ere hasiak gara».

Hagitx zabaldua ez dagoen kirola dela bistakoa da. «Sega bera, kirolek kanpo gaitzen ari da. Gero eta segalari gutxiago dago ofizioz baserrian ikasi duena», adierazi digu izebak. Ilobaren hitzetan, ordea, «kirol bezala, bere zailtasunekin baina segalariak badabiltza han eta hemengo txapelketetan». Etor-kizuna hala-honela ikusita, hona hemen Ansatarren gonbitea: «emakume eta mutil gazteak animatuko genituzke kirol honetara hurbiltzeko! Nafarrez oso urri gabilta eta... harrobi hori lantzea polita litzateke!».

HERRI KIROLAK

FLASH

Nafarroako hainbat txapelketa erabaki dira Iruñeko Sanfermiñetan

Bigarren urtez segidan, Unai Bertizek irabazi du harri altxatze txapelketa

ttipi-ttapa

Azken urteotan bezala, Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatuta herri kirol saio andana jokatu ziren Iruñeko Sanfermiñetan, Foru Plazan. Horietako aunitzetan Nafarroako txapeldunak erabaki ziren, eta eskualdeko kirolariek ez zuten hutsik egin. Emaizta onak eskuratu zituzten.

Maila Nagusiko Arpana Txapelketan, gizonetzkoetan, parte hartu zuten sei bikoteetatik hiru eskualdekoak izan ziren. Ez zen txapelik etorri eskualdera, baina Mikel Bertiz sunbildarra eta Xabier Urrutia arraioztarra bigarren izan ziren (8:56ko denbora); Igor Lasaga beratarra eta Jabier Gallarregi etxalartarra hirugarren (9:42) eta Julen Txoperena eta Iñaki Portu igantziarrak laugarren (9:45). **Kadete mailako Nafarroako Arpana Txapelketan** ez genuen eskualdeko ordezkariarik izan. Emakumezkoena, berriz, Arazurin jokatu da abuztuaren 30ean.

Nafarroako Lasto-Altxatze Txapelketan, eta ehunen eskas batzuen aldea aterata, Karlos Sein igantziarrak irabazi zuen (20 jasoaldi, eta 21.a 8 ehunenean). Iñaki Bereau igantziarra bigarren sailkatu zen (20 jasoaldi eta 21.a 21 ehunenean) eta hirugarrena Oskar Tellexea igantziarra (18 jasoaldi).

Bigarren urtez segidan, Unai Bertiz sunbildarrak jantzi zuen **Nafa-**



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Esther Iriarte txapeldun izan zen txingekin.

roako Harri-Altxatze Txapelketa. Gainera, iaz baino alde haundixeagoa ateratu zion Leitzako Josex Urrutia bigarren sailkatuari: 650 kiloko; joan den urtean 100 kiloko alde ateratu zion. Hiru harriaren artean 6.037,5 kilo jaso zituen guztira Bertizek –iaz 5.812,5–.

Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketa kanporaketa ere jokatu zen Sanfermiñetan eta finalerako txartela lortu zuten bortz aizkolarien artean hiru eskualdekoak izan ziren: Ruben Saralegi (Iruñea-Leitza), Asier Pellejero (Areso) eta Raul Castro (Urrotz). Finala igande honetan, uztailak

26, Elizondon jokatu da. Aipatu, kanporaketa parte hartu zuten 12 aizkolarien artean, Santiago Olano leitzarra tartean zela.

Nafarroako Ingude Altzatze Txapelketa, gizonetzkoetan zein emakumezkoetan txapela ltu-rerera joan zen: Joakin Aioroarentzat gizonetzkoena eta Maika Ariztegiarentzat emakumezkoena. Gizonetzkoetan lau kirolari aritu ziren lanean eta iaz azpitxapeldun izan zen Aioroak lehen aldiz jantzi zuen txapela. Nafarroako errekorra 93 jasoaldikoa da, eta Aioroak 91 egin zituen. Karlos Sein igantziarra bigarren

gelditu zen (89 jasoaldi), Josex Urrutia leitzarra hirugarren (87 jasoaldi) eta Lazaro Bujan leitzarra (78 jasoaldi).

Emakumezkoen txapelketan hiru kirolari lehiatu ziren. Maika Ariztegi iturndarrak ez zuen izena emana txapelketan aitzeko, baina esku hartzea erabaki zuen, baita txapela jantzi ere. Bere markarik onena egiteko zorriaren egon zen, gainera, baina jasoaldi bat guttiagorekin gelditu zen, 82rekin. Maite Iriarte narbartearrak –joan den urteko txapelduna– 77 jasoaldi egin zituen, iazko kopuru bera, eta Ane Verde narbartearrak 67.

Txinga Eramate Txapelketan, emakumeetan, Esther Iriarte narbartearrak iaz jantzitako txapelari eutsi zion, 25 kiloko txingekin 16 plaza egin ondotik. Maite Bengoetxea urdazubiarrak 4 plaza eta 4,80 metro egin zituen eta hirugarren gelditu zen. Gizonetzkoetan ere jokatzekoa zen, baina Migel Angel Sukuntza leitzarrak min hartu zenez, eta bi kirolarik bakarrik eman zuten izena, ezin izan zen jokatu.

Nafarroako Binakako Aizkora Txapelketa ere Sanfermiñetan jokatu zen eta joan den urtean bezala, Miel Mindegia eta Juan Jose Lopezentzat izan zen garaipena. Halere, azkenera arte ez zen erabaki txapela, azken kanaerdikoaren bigarren aldea akitzear zirela pare-parean baitzi-

23 urtez azpiko Urrezko Aizkolarien Banakako finala ortziralean

19 urtez azpiko txapela lortu ondotik, 23 urtez behetikoa eskuratzen saiatuko da Ander Erasun aurtiztarra ortziralean, uztailak 24, Azpeitian (Gipuzkoa). Aitzol Atutxa izanen du aurrez aurre, Bizkaiko txapelduna eta joan den urteko irabazlea. 20:00etan hasiko da saioa Izarraitz pilotalekuan eta sei modalidatetan ari beharko dute aizkolariek. Egun berean, ortziralean, Binakako Harri-Jasotzaileen Torneoa jokatu da Azpeitian. Hiru bikotek hartuko dute parte: Goenatxo II.a-Izeta II.a, Saralegi-Izeta III.a eta Ostolaza II.a-Izeta IV.a.

ren txapeldunak eta Floren Nazabal-Joxejuan Barberena bikotea, eta segundo eskas batekoa alde gailendu ziren Mindegia eta Lopez (25:16). Nazabal eta Barberenak 25:17ko denbora egin zuten eta Donato Larretxeak eta Antonio Senosiainek 27:50ekoak.

Nafarroako Orga Joko Txapelketan iazko irabazleak txapela mantentzea lortu zuen: Joseba Petrirena beratarrak 140 kiloko orgarekin sei itzuli eta 11,16 metro egin zituen. Mikel Pikabea beratarra bigarren sailkatu zen, sei itzuli eta 5,27 metro egin ondotik. Hirugarrena Josex Urrutia leitzarra izan zen (4 itzuli eta 4,10 metro).

San Fermin Motozerra Sarian, azkenik, Oierregiko Estean Arruti hirugarren gelditu zen. Bigarren sailkatuak adina puntu lortu zituen, baina lehen hiru probetako denborak kontuan hartuz, hirugarren izan zen.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ERAKUSKETAK

AMAIUR

Irailaren 21era arte, Virginia Gil Cousoren argazki erakusketa Errotan.

IKASTAROKAK

ELIZONDO

Abuztuaren 3tik 31ra, helduendako ikastaroa: Baztango paisaiak. Izen-ematea Arizkunenean.

KONTZERTUAK

DONAMARIA

Uztailaren 24an, Saxofoi eta biolontxelo kontzertua, 19:30ean Jauregian.
Abuztuaren 21ean, *Erdi Aroko doinuak XXI. mendean* emanaldia, 19:00etan Jauregian.

ARANTZA

Uztailaren 25ean, The Cheese Poffs-en kontzertua, 22:30ean Aterpen.
Abuztuaren 1ean Boom shaka laka... Makala, 22:30ean Aterpen.

AUTOAK

BERA

Uztailaren 25ean, 4x4 autoen ikuskizuna, 16:00etan Postan.

DANTZAK

BERA

Uztailaren 23an, Bidasoaldeko XIII. Gazteen Folklore Jaialdiko emanaldia. 20:00etan Altzateko plazan.
Abuztuaren 1ean, Gure Txokoa Dantza Taldearen ikuskizuna. 20:00etan Eztegar pilotalekuan.

ETXALAR

Uztailaren 26an, Bidasoaldeko XIII. Gazteen Folklore Jaialdiko emanaldia. 12:30ean plazan.

GOMENDIOAK




Pottokaren Eguna egingen da larunbatean Saran

1996AN EGIN ZEN LEHENBIZIKO ALDIZ

Gehienentzat oporrak hartzeko hilabeteak izaten dira uztaila eta abuztua, eta guztientzat besten hilabeteak. Besten zurrumbiloen gabiltza azken aldian, baina oraindik hasi bertzerik ez dira egin. Momentu honetan gainean ditugunak Arano, Elgorriaga eta Elizondoko Santioak dira. Baina herrietako bestez gain, bada bertzelako ekitaldirik ere gurean. Hala, Pottokaren Eguna egingen da larunbat honetan, uztailak 25, Saran. Euskal poniak ere dituzte, pottoka Euskal Herrian desagertzeko arriskuan dagoen arraza da. Leku malkartsuetan bikain maldatzen den aziendak, tamainaz behorra eta zaldia baino tikiagoa, eta

kolorez beltzak edo gaztain ilunak. Halakoa da pottoka, eta bere tokia aldarrikatzeko Pottokaren Eguna egingen hasi ziren Sara aldean 1996an, eta oraindik ere ohitura horrekin segitzen dute. Joan den urtean Ainhoan egin zen eta aitzinekoan Azkainen, eta aurtengoa Saran egingen da, larunbatean. 9:00etan behorak lau mailatan banatuta txapelketa egingen da. 12:00etan animaliak Pottokaren Elkartean barne sartzeko batzordea. Eguerdian zikiro jatea egingen da Plazan eta arratsaldean haurrentzako ibilbideak izanen dira.. Itxuraz eta izaeraz hain sendoa den animalia hau ezagutzeko aukera paregabea.

DISKAK



Gaupasa, dantzaldiaren izarrak
ELKAR, 2009

Bilduma honetan, garai baten ezagunak eta herrikoiak izan ziren kantu aukeraketa bat eginez, dantzaldiak, erromeriak edota berbenak ekarri dituzte gogora. Oroimen batzuk ezabaezinak dira, une zoriontsuenak beti gordetzen baitira. Zeinek ez ditu Egan, Akelarre, Joselu Anayak, Gozategi, Alaitz eta Maider, Maixa eta Ixiar, Etzakit, Errekalde Anaiak, Trabuko, Niko Etxart, Nahi ta Nahiez, Zabaleta eta Imanol, Sus-traia... gogoratzen? Urteetan gure plazetako urrezko urteak alaitu eta hornitu dituzten talderik eraginkorrenen kanturik adierazgarrienak biltzen ditu *Gaupasa, dantzaldiaren izarrak* izeneko diskak, euren errepertoriozko preziatu eta arrakastatsuen bitartez. 20 abestirekin osatua da diska, eta maiatzaz geroztik kalean dago.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (ekainaren 26tik uztailaren 3ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 36,00 € (-2,00)

Zerri gizena
1,255€ kilo. (+0,042)

Zerramak:
0,470€ Kg/bizirik. (+0,020)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,83 (=)

1.koa 3,53 (=)
2.koa 3,83 (=)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 3,93 (=)
1.koa 3,63 (=)
2.koa 2,95 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,90/3,00
Zaldi-behorrak: 1,60/1,80
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 6,60/7,40
8-10 kilokoak: 5,30/5,70

JAKIN BEHARREKOAK

Bataz bertze 22.000 euro kostatzen da ezkontza bat Nafarroan

Krisian egon arren, prezioek ez dute beheiti egin

Ezkontzea ez da batere merkea. Hala erakusten dute datuek. Bazkaria, jantziak, argazki bilduma... Bikoite aunitzentzat zaila izaten da gastu horri aitzin egitea. Berriki Iratxe Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarteak Nafarroan egindako ikerketa baten arabera, 150 gonbidatu dituen ezkontza baten gastua ez da 22.000 euro baino baxuagoa.

Krisi garaia izanagatik, ezkontza baterako kontratatzen diren zerbitzuen prezioak ez dira jaitsi, mantendu edo igo egin dituzte. Edonola ere, krisiak izan du ezkontzetan eragina, gonbidatuen kopuruan, adibidez. «200 gonbidaturen ordez 150 izanik, 5.000 euro aurrez daitezke», dio Iratxek.

Bazkaria izaten da gasturik haundiena eragiten duena, gastu osoaren %50a. 150



150 gonbidatuko bazkaria 15.000 euro kosta daiteke.

gonbidatu dituen bazkari bat 15.000 euro kosta daiteke. Prezio horren azpitik dabilzan jantziak badira, baina guttieneko prezioa pertsonako 100 eta 125 eurokoa da.

Gastu haundia eragiten duen bertze kontua, emakumearen kasuan, soinekoa izaten da. Iratxek egindako ikerketaren arabera, «ez dira mila euro baino merkeagoak». Bataz bertzeko prezioa 1.200 eurokoa da. Gi-zonkoaren jantzia merkeagoa izaten da,

«700 euro inguru», Iratxeren hitzetan. Jantziei osagarriak gehitu behar zaizkie: ilea-apaindegia, makillajea... 450 euro gehiagoko gastua ekar dezakete horiek guztiek.

Argazki edo bideo bilduma egitea ere ez da merkea. «Bataz bertze bilduma arrunt bat egitea 1.500 euro kostatzen da», adierazi dute Iratxetik. Gainera, argazkilariak bazkarian edo dantzatzerakoan gelditu behar badu, garestiagoa aterako da.

Aintzat hartu beharreko bertze gastuak ere gogoratu ditu Iratxek: musikarien prezioa ez da 1.200 eurotik jaisten, loreak 300 euro kostatzen dira, eratzunak 250 euro, doako barra 1.500 euro inguru, autobusa kontratatuz gero, 750 euro, eta mokadua bazkariaren barne ez badago bertze 400 euro.

Argazkien inguruan, jakingarri bat ere bai: argazkien negatiboak argazkilariarenak dira, eta ez ezkondu den bikotearenak.

LIBURUAK



Urre urdinaren lurrina

Jurgi KINTANA

PAMIELA, 2009

Volgako batelariak blogean plazaratu zen auzi batean du abiapuntua Pamiela argitaletxeak kaleratu duen Jurgi Kintanaren *Urre urdinaren lurrina. Euskal idazle galduren bila (1810-1940)*. Idazle batzuk kezu ziren euskaraz, oraintsu arte behintzat, ez dugulako izan maila jasoko literatur tradizioirik. XIX. mendean, erraterako, ez zen egon Rimbauden pareko euskal poetarik. Eta oker baleude? Gure literatur tradizioak uste

duguna baino gehiago gordeko balu? Ez ote zen existitu 1810-1940 artean gero-gera ahanzia geratu den puntako euskal idazlerik? Aukera horri heltzen dio liburu honetan idazleak eta 1810 eta 1940 urteen arteko euskal idazleen bilaketari ekiten dio. Emaizta ez da hutsa izan, eta 96 orritan jaso du guztia. Jurgi Kintanarena da literaturgogoeta berezi hau, sortzez bilbotarra eta lanbidez historialaria dena.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

BESTAK

ARANO

Uztailaren 18an, 19an eta 24tik 26ra, Santio bestak.

ELGORRIAGA

Uztailaren 23tik 26ra, Santio bestak.

ELIZONDO

Uztailaren 24tik 28ra, Santiago bestak.

BERA

Abuztuaren 2tik 6ra, Sanesteban bestak.

SUNBILLA

Abuztuaren 10etik 14ra, Santiburtzio bestak.

LEITZA

Abuztuaren 8tik 15era, Santiburtzio bestak.

BEINTZA-LABAIEN

Uztailaren 31tik abuztuaren 4ra, bestak.

GAZTELU

Uztailaren 31tik abuztuaren 4ra, Santo Domingo bestak.

ZIGA

Abuztuaren 8tik 11ra, Sanlorentzo bestak.

MERKATUA

ELIZONDO

Abuztuaren 1ean, artisautza azoka eta herri kirol ikuskizuna Merkatu Plazan. Abuztuaren 29an, artisautza azoka eta kontzertua Mr. Dixie Jazz Band taldearen eskutik.

OSPAKIZUNAK

SARA

Uztailaren 25ean, Pottoken Eguna.

LEITZA

Uztailaren 25ean, Gaztetxearen laugarren urteurrena.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar dira. Argazkia jarri nahi izanez gero, 10 €. Ttipi-ttapa telebistan eta www.ttipi.net/en ere agertuko da 8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurraekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BERA. Bortziriak auzoan etxe adosatua salgai. Interesatuak bakarrik deitu. **☎617 567047.**

DONEZTEBE. Intzakardi parkearen ondoan pisua salgai. Pisua ganbarearekin elkartua. Garaje plazarekin. **☎680 781632.**

BERA. 80 m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela, trastelekua eta ganbara. Berritua. **☎657 715243/657 799953.**

ETXEBIZITZAK 103 Errentan eman

IRUÑA. Milagrosa auzoan pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, komuna, sukaldia eta 30 m²ko terraza. Igogailuarekin. Berogailu indibiduala. Ikasleentzat prestatua. **☎948 890793.**

IRUÑA. Unibertsitatetik 200 metrotara 54 m²ko apartamentua errentan emateko, bi lagunendako. **☎635 214777.**

ETXALAR. Etxebizitza errentan emateko. Bista ederrak eta prezio egokia. **☎680 538502.**

ELIZONDO. Braulio Iriarte karrikan pisua errentan emateko. 3 logela eta berogailua. **☎676 707620.**

BERA. Altzaten pisu handia errentan emateko. Sukalde-jangela, egongela, 3 logela, 2 komun konpletokak, berogailua etxe guzian. Gela guzietan argi naturala dute. Bizitzera sartzeko prest. **☎680 984124/ 948 631603.**

ETXEBIZITZAK 105 Konpartitu

IRUÑA. Azpilagaña auzoan, pisua konpartitzeko bi lagun behar dira. UPNAREN ONDOAN. **☎661 588691 (Aitor).**

GARAJEAK/LOKALAK 107 Saldu

LESKA. 20 m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. **☎659 609678.**

GARAJEAK/LOKALAK 109 Errentan eman

LEKAROZ. Hiruiturri hostalata errentan emateko. **☎948 580389 (M^o Angeles edo Luis).**

BERA. Telefonikaren ondoan garajea errentan emateko. **☎687 950368.**

LURRAK/ORUBEAK 112 Salgai

SARA. Ura, argia eta isurbidea dituen 800 eta 1.000 m² arteko lur eraikigarria salgai. **☎0033 559542540.**

ITUREN. 2.000 m²ko lur eremua salgai, leku eta prezio onean. **☎676 013103.**

LEITZA. Basakabi inguruan borda, artzain txobola eta 3.000 m²ko lur ere-

mu salgai. Lur-eremua aroboetxamendurako da eta erdian ura du. Baimen guzietan. Bertaraino pista badago. **☎948 610686.**

ZERBITZUAK 208 Bertzelakoak

Ingeleseko laguntza klaseak ematen dira. **☎605 729241.**

LANA 302 Eskaintzak

BERA. Kontzesionario batean esperientziadun mekanikoa behar da. **☎948 630621.**

ZUBIETA. Herriko Ostatuan bestetan lan egiteko esperientzia duten bi zerbitzari behar dira. **☎948 451841.**

URDAZUBI. Ikaburua jattetxean 2 langile behar dira. Bat fregaderan aritzeko, 12:00etatik 17:00etara (asteazkena eta igandea jai). Bertzea eguerdian jantokian zerbitzatzeko aritzeko (asteazkenak jai). **☎948 599222.**

BERA, DANTXARINEA, IBARDIN eta LUZAIDEN. Enpresa batek frantsesa dakien jendea behar du kosmetika produktuekin lan egiteko. Ahal bada autoarekin. Kilometrajeak eta dietak ordainduko dira. Ortzegunetik igandera lan egiteko. Bataz bertze 7 ordu egunean. **☎944 106155/ congreabas@congrebas.com.**

MOTORRAK 501 Salgai

Volkswagen Scirocco 2.0 TDI 140 autoa salgai, xurria. Premium paketa. 2008ko azarokoa. 7.000 kilometro. **☎629 694443.** Yamaha cw50rs **scoote-**

rra salgai, 49cc-koa. Egoera onean eta 2005.ute-koa. **☎687 661251.**



Autokarabana salgai. **☎669 948990.**




Gas-gas TXT 320 motorra salgai. NA-BB matrikula, ITVrekin. Egoera onean. Prezioa: 1.200 euro. **☎620 011246 (Juanmi).**

Peugeot 106 1.0. KID autoa salgai, merke. Hasiberrirentzako aproposa. ITV maitzearan pasatu berria. Egoera onean. **☎637 812999.**

ANIMALIAK 602 Salerosketak

Gaztain koloreko **zaldi** ederra eta mendian ongi egoten dena salgai. **☎609 411298/690 830292.**



Collie arrazako **2 zakurkume** salgai. **☎948 450563.**

DENETARIK 701 Galdu aurkituak

Kartera marroi lauki bat galdu da Etxalarko Benta-

tan edo Donezteben. ☎608 243935.

Yorkshire arrazako **zakur** bat agertu da Igantziko harrobi inguruan. Grisa. ☎948 635458.



DENETARIK 702 Salerosketak

Itxiturak egiteko gaztain **piketeak** salgai, 2 euro-tan. 1,80 metrokoak, lodiak eta indartsuak. Gutxienez 50 piketeko eskaerak. Eskaintza hau uda honetarako bakarrik da. Kargatzeko momentuan ordaindu beharra (Ez du gu ordainketa geroraturik onartuko). ☎948 510078.

Belar bola idorrak salgai, aurtengoak. ☎660 393436.

Eskaintza: **solariuma** salgai, presio altukoa. Derrigorrezko azterketaren ziurtagiriarekin, 2009/05/20koa. ☎636 607055.

DENETARIK 703 Bertzelakoak

IGANTZI. Sarrola auzoko

16. zenbakian hotz eta bero-sisteman ari den Bortziarik edo Gipuzkoako teknikariari Sarrola 10eko auzotarrarekin harremanetan jartzeko eskatzen diot. Edo norbaitek teknikari horietako bat ezagutzen badu deitu edo mezua bidal dezala: ☎628 645307.

MENDAUR MOTOR

948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

SANTESTEBAN Tailerrak

RANGOO 404 1.6 100'96-CV
gasolina - 45.000 km
2007 urtekoa

PEUGEOT BOXER 2.0 D 120-CV
2002 urtekoa - 125.000 km

LAGUNA II 1.9 DCI 120-CV
11.000 km - 2000 urtekoa

ETA GAINERA
Peugeot 307 1.110CV 2005 urtekoa - 28.000 km
Ford Focus 1.8 TD (2002 urtekoa)
Kangoo Express 1.9 (TXA) 2002 urtekoa
Citroen Saxo 1.3 D 50 CV
Renault Express 1.9 D
Mazda II Dynamique 1.9 DCI 120 CV
Opel Astra GTC 1.9 DTI 120 CV

DONEZTEBeko REANULT-en KOTXE JA BERRITAN SEKULAKO ESKAINTZAK

ttipi
ttapa

www.ttipi.net

info@ttipi.net

☎ (0034) 948635458

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK
zure laguntza behar du

Proiektu zenbakia: **15.996**
Eginzazu TTIPI-TTAParen alde

Zure laguntza eskertzeko,
motxila eder hau
izanen duzu opari.

Eska ezazu TTIPI-TTAParen proiektua
aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako
Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu
TTIPI-TTAPara 2009ko abenduaren 30a
baino lehen.

geure bezeroek aukeratutako proiektua **can**

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.tppi.net



Etxalarko **AIERT, ATATXI JOSE LUIS, ALAZNE** eta **NAROAK** urteak bete dituzte uztailearen 1ean, 8an eta 21ean. Aunitz urtez baserriko familiaren partetik.



AIMAR IPARRAGIRRE ZINKUNEGI etxalartarrak 8 urte bete ditu uztailearen 8an. Zorionak eta muxu pila gure etxeko dantzariari.



IRENE PETRIRENAK 14 urte bete ditu uztailearen 12an. Zorionak eta muxu pitxurri atarren partetik.



LEIRE MANTEROLAK 8 urte bete ditu uztailearen 13an. Zorionak eta muxu haundi bat zure familiaren partetik.



ALAITZ LOIARTE OTXANDORENA irundarrak urteak bete ditu uztailearen 23an. Zorionak eta muxu haundi bat Esther eta bere familiaren partetik.



IKER LOIARTE OTXANDORENA zubietarrak urteak bete ditu uztailearen 21ean. Zorionak eta muxu haundi bat Esther eta bere familiaren partetik.



Zubietako **IKER LOIARTE OTXANDORENAK** 5 urte bete ditu uztailearen 21ean. Aunitz urtez eta muxu bat familiaren eta bereziki Naroa, Garazi, Uxue eta Ekaitzen partetik.



TIANE LARRETxea. Zorionak printzesa!!! Muxu erraldoi bat attatto, amatto eta Aroaren partetik.



UXUE REKARTE erratuarrak ekainaren 19an 4 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik, eta batez ere, anaia Aimarren partetik.



MIKEL eta **NEREA ARREGI** doneztebarrek uztailearen 20an eta abuztuaren 19an urtea eta lau urte bete dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Urrozko **IRUNE URROZ GONZALEZ**ek 4 urte bete ditu uztailearen 22an, eta bere ahizpa **MAIALENA** eguna izan da. Zorionak guraso, amatxi, osaba-izeba eta familia guztiaren partetik.



Beintza-Labaiengo **ASIER ETXEBERRIAK** 3 urte potolo beteko ditu abuztuaren 6an. Zorion beroak Mirari, Aimar eta familia guztiaren partetik. Muxu pila-pila patata tortilla denen partetik.



Irungo **XUNE ZUBIALDEK** abuztuaren 27an 8 urte beteko ditu. Mila kilo zorion Unai, Mirari, Aimar, Jone eta Landerren partetik. Berendu ona prestatu, bale?



KEPA TELLETXEA etxalartarrak 3 urte bete ditu uztailearen 14an. Zorionak familia guztiaren partetik.



NEREA ORDOKI ETXEPETElek lesakarrak 8 urte bete ditu uztailearen 16an. Zorionak familia guztiaren partetik. Aunitz urtez!!!



XANTI eta **GABRIEL AGIRRE** beratarrek uztailearen 30ean 2 urte eta abuztuaren 6an urteak egiten dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Aunitz urtez potxola! Hagitz ongi pasa eguna eta ea berriz ere gosari goxo batera gonbidatzen gaituzun. Muxu haundi bat. Kaxkarrak.



Doneztebeko neska polit honen urteak beteko ditu uztailearen 28an. Zorionak **SAIOA** eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Lakuntzako **MADDIK** 5 urte beteko ditu abuztuaren 13an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik, bereziki osaba Mikelen partetik. Ongi pasa eguna!!



EIDER TABERNA MUTUBERRIA aranztarrak 6 urte beteko ditu uztailearen 30ean. Aunitz urtez!! Muxu haundi bat familiaren partetik.



Leitzako **JOANES** eta **JONEK** 3 urte beteko dituzte abuztuaren 3an eta 4an. Zorionak eta urte askotarako bi gizontxo. Horrelaxe segi, alai-ai. Muxu bana Bidegaiñ eta Are-soko familien partetik.



GARAZI MIGELTORENA MITXELENA lesakarrak 7 urte eginen ditu uztailearen 23an. Zorionak eta muxu haundi bat gurasoen partetik.



SARA GOÑI eta **NAROA OTAMENDI** gure matxinsaltoek 4 urte beteko dituzte uztailearen 7an eta 26an. Zorionak eta muxu erraldoi bat Ane, Julen, Jon eta familia guztiaren partetik. Segi bizkor!



NAROA OTAMENDI **ABRIL** gure printzesak 4 urte beteko ditu uztailearen 26an. Muxu pilo bat atta, ama, Ane eta guztion partetik. Ongi pasa Mari Tomasa!!!



Zorionak **KATIXA OIARTZABALI** bere zazpigarren urtebetetzean. Ondo pasa sorgintxo aitaxo, amatxo eta Onintzaren partetik.



Sunbillako **JUNE APEZTEGIA** **ETXEBESTEK** abuztuaren 7an 10 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren eta bereziki Ibai eta Janireren partetik.



Sunbillako **JUNEK** 10 urte beteko ditu. Muxu haundi bat lagun guztien eta euren gurasoen partetik. Berendu goxogoa prestatu.



EIDER INDABURU etxalartarrak 4 urte eginen ditu abuztuaren 18an. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko partetik. Aupa rockera!



Zorionak bikote! Heldu da abuztuaren 8a, denontzat egun ederra, bainazuentzat ezin hobea. Zorionak eta muxu haundi bat zuen lagun partetik. Gora ezkonberriak!



Eratsungo **GOIZEDER** eta **JASONE MINDEGIA** **BENITOK** abuztuaren 21ean eta 4an 12 eta 10 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bana ama, aita, Iturengo, Sarrigurengo eta Eratsungo familien eta bereziki Amagoia eta Enekoren partetik.



AINARA ALTZURI MAKUSO aurtiztarrak uztailearen 28an 8 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia osoaren partetik eta bereziki Mikel, Olaia eta Iosuren partetik.



MIKEL ALTZURI MAKUSO aurtiztarrak abuztuaren 6an 12 urte beteko ditu. Zorionak eta besarkada haundi bat familia osoaren partetik eta bereziki Iosu, Olaia eta Ainararen partetik.

Lasao

• egurrezko altzarria

Lasao Ind.20730 AZPEITIA • T. 943 15 11 82 - F. 943 15 10 98
 informacion@lasao.com • www.lasao.com



* Ordainketa erreza, 36 hilabetean, interesik gabe.

IHEO IRUN

Hizkuntza Eskola Ofiziala Escuela Oficial de Idiomas

Alcaldia de Sacas, 13
 20305 Irun
 Tel. 943 623 381

www.eoirun.com
 idazkaritza@eoirun.com



Irungo Hizkuntza Eskola Ofiziala

Hizkuntzetan formakuntza kurtsoak

Euskara, Ingelesa, Frantsesa, Alemana eta Arabiera (ez ofiziala)

Kurtsoaren iraupena: Urritik maiatzera. Astean 2 egun, egunean bi ordu. Goizez eta arratsaldez (9:00-21:00)
Ikasturtearen kostea: 66,02€ (33,01€ familia ugaria) - Arabiera izan ezik.
Matrikula: Uztailaren 10etik 30era, irailaren 1etik 7ra.



**AURTENGO FESTETAN,
GIZABIDEZKO
BANKA ZUREKIN
IBILIKO DA can. ✕ ✕**